

Jose Mari Satrustegi

EKAITZA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Ekaitza*, J.M. Satrustegi. Jakin, 1973.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=233>

HITZAURREA

Mahai borobila zergatik esaten zaion, hain zuzen, ez dakit. Bainan, elkarrizketa helburutzat harturik, bere luze-meharrean, borobila gertatu da gurea. Harri zahar eta zura beltzez inguraturik, herritarra zen giroa, eta herrikoia esandako guzia. Ez da inor beste bilturrez ixilik gelditu. Eta zirta mailan esan pottokokeriaren bat edo beste barne dela, arrazoibide onik asko ere jaso da.

Hutsune larri bat izan du gure bilerak: mundu zabaleko 'prolema' haundiatik urrutitxo ibilia. Gizarteko gai sozial orokarrak ez ditugu aipatu. Viet-Nam, China eta Palestina aldera heltzerik ez dugu izan. Hitz haunditxoak guretzat. Arrunta zen gure taldea; euskal artzain eta nekazari artekoa. Ameskeria eta izarretako bideak utzirik, hori bai, egunoroko turraren gainean sendo finkatuak ginela uste dut.

Herri txikia da, izan ere, Udargi. Eta *herri txikitako buru hauste haundiatik, libra gaitzazu Jauna*, esan beharko genuke herriko apaiz zaharrak bezala. Mundua ongi joateko, Iruña izan behar lukeela herri txikena, Zion berak. Ni, berriz, talde txikien alde.

Baserritarren kezka guziak lau puntu nagusitara datoz:

1) *Dirua*. Dirua asmatu zuenak urkabidea merezi omen zuen. Kalterik aski egin du munduan. Garai batez gutxiegi bezala, orai gehiegi; eta ez jakin zer den hobe. Axaleko haundikeriatan leporaino sartua da gazte jendea, nor gehiagoka bezala. Udan harrokeria nagusi eta neguan eskuak huts. Lehen eta orai, berdin pobre.

2) *Jakintza*. Asko aurreratu da hortan. Lehengo zabarkeria negargarri zen. Bainan, zer erakusten zaie? Gurasoek dakitena, haurrek zer duten ikasten... Lotsa galdurik eta lana egiteko asmo gutxi. Jakinduria haundiz egindako tresna hoiien menpeko ez ote da, azkenean, gizona? Alaitasun gehiago behintzat bazen lehen.

3) *Sinesmena*. Heurek ere ez direla berotarik izanak, zioten; bainan, oraiko hau gehixeegi ez ote den! Denon gaintetik genuen haren itzala kendurik nora helduko da gizartea? Ikusten diren guziak ondore berdina ote? Burubide exkaxa. Ondo gabeko putzuaren gaua.

4) *Jokabidea*. Izadiko beste edozein ar-emeen jokabide askatua nahi lukete batzuek. Kalez-kale

usainka dabilten txakurrena, esate baterako. Bainan, txakurrak ez du inoiz jakinaren gainean umerik botarazten. Otsoak berak ez du kumerik salgai, ez bide baztarrean uzten. Nora goaz?

Udargi-ko festa egunean, soinua leher zapartaka eta plaza bete betean zegoela, hil ezkilak elizan. Bat batean ixildu dira denak nor hil den jakiteko. Izerdi latza, gaxoren bat etxean zutenen kopetan. Bildurra.

-Nor hil da? galdetu diote, noizbait, herriko apaiz zaharrari.

-Lotsa hil da; lotsa!! Esan plazan diren guziei... hil dela herri hontako lotsa

Mahai borobila sakona izan da. Iritzi ezberdinak batzerik ez dago; eta bakoitza bere bidez joan den baino urrutiago joaterik ere, nekez. Zerbait haundi gertatzen ari da gure artean. Herri txiki baten egosketa larria. Ekaitza.

UDABERRIA

Txakurra. Mendi aldeko artzain etxetan behar beharrezkoa izan da beti txakurra. Artzanoak genituen lehenik, oihan estuak otso-zulo zirelarik, Euskal Herriko txakurrak. Gorputz haundiko mutur zabalak, ez zioten haiek otsoari bildurrik.

Arditan ibili ohi zela beti artzanoa, dio Udargi-ko artzain zaharrenak; ez omen zuen inoiz lorik egiten. Ardiren bat artaldetik bereixten bazen, berekin zuen txakurra nagusia agertu arte. Gauaz ere erne, lasai jetxi zitekeen etxera gizona. Haren poza artzainari biharamonean bidera ateratzea...

Basoak garbituaz bezala, lekutuz joan ziren baztarretan otsoak eta artzanoen egitekoa ttipitzen. Elurte haunditan ezik, ez zen mendian otsorik ikusten, eta artzano bakarra gelditu zen herri guzian.

Zoragarri da larogei ta zenbait urteko ezpain hoietatik gauzak entzutea. Goiz batez, dio kupitu antzean, badijoa artzaina portua gora eta nun hartzen duen odol errestoa bidean. Handik laster ardi bat karrabidean hil berria. Geruxeago beste bat odol hustutzen... Berri txarrak. Heldu zaio, halako batez, aurrez aurre artzanoa odol zirtaz gorriturik, baina buztanari eraginez eta pozez jauzika.

-Hau diat arakina!! dio bere baitan artzainak; eta gerrikoan zeraman aizkora txikia harturik bero beroan garbitu du bere txakurra. Erotua da, eta zer egiten duen ez dakiela dijoa artaldera. Sare ondoan nun ikusten otso zahar baten gorputza. Esker txarraren saria jaso zuen gizonarengandik Udargi-ko artzainoak.

Urbasa mendian aztalak utziak dituen gizon batekin ari nintzen mintzatzen. Buruz buru ginen mahai baten inguruan, hamar, dozena edo gehiagoren artean. Haren hitzak zaizkit, halare, barne barnean sartu:

-«*Sei urte puntekin ninduten artzain ereman mendira*», esan digu seriooki; *hori egiztatu lezakeanik bada oraindik herrian. Sei urte ta eskola izpirik ez, mendia zen gure «dote».*

Gaurko ikastoletako haurrak nituen nik gogoan.

-Eta zer egin lezake sei urteko mukizu batek mendian?

-*Nik egiten nuena, gutxiz gora behera, erantzun zidan; ogia ereiten joan. Ez da Perrandoren kontua; ogi apurrak zorrotik hartu eta bidean nituen nik ereiten, orduan.*

-Txoriak bazkatzeko, ala...?

-*Bai, zera!!*

-Etxerakoan bidea ikasteko?

-Behin mendira-ezkero nekez ginen gu etxera itzultzen. Sinestuko ez baduzue ere, artoa bezala jaioko zelakoan ereiten nuen nik zorroko ogia. Halako gizajoak bota gintuzten gu mundura.

Euskal Herria, beste herri zahar askoren antzera, aberetza eta nekazalgotik bizi izan da denbora luzean. Lanbide honek bere egitura ta kutsua utzi dizkio gizonari, asmakizun eta esaera berexiak, herri jakintza. Beharko-ta mendizale da mendi aldeko artzaina. Belar eta iturri mutur guzien berri txikitatik badaki; haize ta laino beltzen asmo izkutuak igerri ohi ditu.

Nekazariaren lanak, beste alde, badu arrisku. Lur iraultze, ereite ta jorrak aski ez dituela, euriak eta beroak egin behar izaten diote beste; gainerako guzia. Urteko izerdien saria eguraldiaren baitan ikuste horrek fiakaitz eta neurritsu egiten du gizona. Kezka-tsu.

Gauzak ezin zaizkiola beti ongi joan, badaki: *gu hainekorik ez laike munduan*, entzuten nion emakume bati; *Jainkoak ere nahikoa lan izango luke gurekin*. Bainan, ez da hortan. Partza hainbat zorri ematen dio biziak.

Hau izan da aspaldidanik gure herri giroa. Orai dira gauzak aldatzen hasi. Zortzi orduko lanari loturik bizi den hiritarrak, mendiko egun lasaien berri nola jakin! Eta nekazarien kezka zer daki! Euritzen badu aterpea merke, iruzki gorien bildurrik ez, eta ekaitzarekin galtzeko gutxi.

-Bai; *besteren minak, begitan logure*, esan zuenak askotxo zekien. Bainan, haiek ere zerbait izango dute; nik dakidanez, aste bakoitzak badu bere ostirala.

Ilunabarra. *Ur goiena* zinean hartzeko bilduak ginen apez etxean Herriko haur guziak garraxika inguruan. Bat batean denak ixilik gelditu dira, lurrak iretsi balitu bezala. Gero, mutilen abestia:

Izotzetan elurretan
abenduko gau luzetan
beste guziak ohian eta
gu, gaixuok, oinutsetan.

Ez, ez zen egia., Ez zen izotzik, ez elurrik; udaberriko gauetze ederrenetakoa. Gu ere mahaitik mugitu eta ikustera goaz. Irrutiko gizon bat gure ohitura zaharrak ikasi nahaian, *Ur goiena* erremendu batekin jasozen ari da. Zer esanik ez gure ankotsen berri eman duela tresnak. Berdin du; kamioi haundi baten zurrunbak moztu du saioa.

Hamar hamabi mutil gazte dira abeslariak; berrogeitik gora, bai, inguruan kondatu nituen haurrak. Atzerago bialdu ta hasi zen bigarren saioa. Txakur biren jaunkak irrutian.

-Zaila da herri bati eztarri zuloa ixten, esan diot.

-Ez du axolarik, arantzun du berak. Txakur hotsak baino txarragorik bada herritan. Itxura duenez, etxez etxe ibiliko ziren gazteak urtezahar gauean. Era guzিতako bertsoak badira. Denendako balio duen *ur berriaren* eskaintza:

Ur goiena, ur barrena
Urteberri egun ona,
pakearekin osasuna
onarekin ondasuna.

Herriko apezarengana joaten ziren lehenik:

Abade jauna berorren
lizentziarekin
nahi nuke kantatzen hasi
nere lagunekin.

Egun onak ematera
zure familiari
nere deseioa da-ta
lehenikan berorri.

Nagusiari egiten zaizkion bertsuak bere nortasuna haizatzeko dira:

Hor goien goien izarra
errekaldean lizarra
etxe hontako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.

Etxe hontako nagusi jaunak
poltxia txintxirinduna,
poltxia txintxirinduna
zilar ezpataduna.

Hor golen goien belea
erreka aldean goldea,
etxe hontako nagusi jauna
nekazaritxo noblea.

Aipamen ugarienak, halare, etxekoandreari egiten zaizkionak. Bazekiten laguntza harengandik etorri bebar zuela, eta gauza politak esaten zizkioten.

Etxe hontako andre zabala
ama onaren alaba,

bidean aditu dugu
limosnaria zerala.

Etxekoandre giltzaria
iriki zazu ataria,
iriki zazu ataria
badekagu ur berria.

Hemen gera etxekoandrea
zure gauza zein ona
egun hontan jantzikoytuzu
zure soinian hamar gona;

Txuri nabar azpiko
gorri ederra gaineko,
zure parerik ez da
plaza bat onratutzeko.

Hor goien goien iturri
ura da txorrotik etorri,
etxe hontako etxekoandreak
Ama Birjina dirudi.

Sentitzen zaitut, sentitzen,

ari zerala jaikitzen
zure gerriko giltza soinua
hemendixen dut aditzen

Seme-alaba gazterik balin bazen etxean, haientza-
ko ere baziren koplak:

Damatxo gazte konponitua
hoiek kolore gorriak,
zure matelak iduri dute
klabelinaren orriak.

Klabeledinaren orriarekin
arrosa maiatzekua,
hementxe gaude zure begira
damatxo bihotzekua.

Sentitzen zaitut, sentitzen,
sala berrian jeikitzen
zure oin txiki politen hotsa
hemendixen dut aditzen.

Etxe honetan oilar bi
batek bestea erori,

etxe hontako zaldun gazteak
hamalau urre txintzarri.

Hamalau urre txintzarriekin
zazpi damaren eguzki
hoiek danak hala izanik
gehiago du merezi.

Hobe zen ahora zer emanik gabe gelditu, haiei
ezer eman gabe baino. Bereak eta asto, beltxarenak
entzuten zituen zimurrak:

Eguzu, bada, eguzu,
baldin eman nahi baduzu,
eman nahi baduzu eta
bestela despedi gaitzazu.

Hor goien goien lainoa
haren azpian otsoa,
arkakusoak hilko al du
etxe hontako atsoa.

Arramaiuan sagua
haren atzetik katua

etxe hontako limosnarekin
ez dugu beteko zakua.

Goien goien elorri
ondoan jo ta erori
etxe hontako etxekoendreak
labe zatarra dirudi.

Etxe hontako etxekoandreak
labea bete ipurdi,
labean ezin kabitu
eta haustokira erori.

Oraiko gazteak ez lirake etxez etxe ibiliko. Herri txikiren batean ateratzen omen dira, baina lasterka; biz-bat-lau bertso abestu ta berriz ostatura.

-Hemen zer ahitura da? galdetu du tresnarekin zebilen gizonak.

-Apezaren etxera inguratzen dira herriko agintariak eta han daudela joaten zaizkie mutilak. Opil-gozo edo tarta ematen diete mutilei, berek ur berria edan ondorean.

-Eta men denboratik asko aldatu da?

-Giroa, bai. Gu beti pelean ibiltzen ginen, borrokan mutil talde bat bestearen kontra. Lehenbiziko etortzen zenari ematen zioten opila. Herri batzutan bigarrenarendako ere zerbait izaten zen, laukoren bat besterik ez bazen ere; hemen ezer ez. Lasterkari hoberena bidaltzen genuen pitxerrarekin ur eske. Hamabiak jotzen hastearekin batean hartu bebar izaten zen ura, eta laster lagunetara. Polita zen.

-Eta ogia zen, gero, gur ematen ziguten *olatia!*, esan du artzaiak. Ez uste izan orai bezala tarta ederra!!! Eta oraiko haurrek txokolatia baino gustorago jaten genuen. Ia baden diferentzia!

Manetofoi lana kanpoan eginik barnera sartu garadenok.

Gaua. Argazki tresnaz betea da gela. Hiru ziren kanpotik etorritako jaunak; eta hiruak hiru, bai larruz eta gantzaz. Gizon alai eta atsegina, zaharrena. *Zorionekoa* -zion berak- *mendi alde hauetan bizi daikena*. Bere buru soila orrazten San Pedrok baino lan gehiago ez zuen. Ikusten denez, ez du kalparrak egiten gizona: beste bien buru agertzen da.

Oraiko gazte, artist entzeko, erromesak iduri zuten besteak. Garai bateko fraile bizar kuzkurrez jantzia baten aurpegia. Bizkarra beteko txume molkotsa zuen bigarrenak ganean. Ipar aize finak aurpegira ekartzen zion, jostetan bezala, herriko neska mutilen barregura eta irria zerbait bazen baztarretan.

Hari mordo batekin dabil bizarduna. Bospasei mailako eskileran igorik txumaduna. Beltxarana hura; hau berriz gorri antza. Zuzendaria gurekin mahaian gaztaia jaten ari da.

-Zer adierazten du ohitura honek? -galdetu du.

-Ez dakigu, ba! erantzun dio Urbasa mendiko artzain izanak. Guk beti hala ezagutu dugu, eta hala jarraitu. Zergatik? Nork daki!! Auskolo noizkoa izango den.

-Nola nahi dela -esan diet nik-, ur horrek une berriarekin zer ikusia izango du. Zertako, bestela, hamabiak jotzeko puntuan hartu? Egunez ere iturria hantxe egongo zen, ur eske joateko...

-Itzuli asko eman izan dizkiot nik gauza horri, esan du beste batek. Uda ta negu atertu gabe darion iturria eta gizonaren egunak ez al dira, itzultzerik gabeko joaneran, elkarri iduriak?

-Izan litekeena, dio artzainak. Itxura badu. Ur horren harian ikusiko zuten garai bateko gizonak, beren bizian ixil ixila dijoan denbora.

Lehenbiziko galdera egin duenak ez du gehiago hitzik atera. Iritziak jaso, eta berea ez eman. Izan ere, hortarako etorri da gure herrira.

-Gaizki ulertu ez badut, hiru gauza ditugu hemen jasotzekoak -esan du zuzendariak-: agintarien mahaia, mutilen lasterketa eta uraren eskaintza. Lehenbizikoa bar genezake gaur eta beste biak bihar-ko utz. Zer derizkiozue?

-Zuk dakizu horren berri...; agindu.

Itsutzeko argi biziak piztu ditu, bat batean, bizar-dunak.

-Bagara? -galdetu du nagusiak.

-Nahi duzularik, erantzun dio gazte beltxaranak argiak hil; eta. Ez genion ordu arte hitz bat entzuna. Estreinekoa.

Txumaduna gerrirainoko oihal ilun batekin estalita dago eskilera gainean. Bere lana hastera dioa.

-Gu ez bageunde bezala, elkarrekin hizketan ari zuek -esan digu nagusiak-; jan eta edan burua itzuli gabe. Gero, nik leihoa jotzean alkitatik mugitu eta mutilen bidera ateratzen hasi.

-Cámara!

Argi zuriz bete da berriz gela zaharra. Zer den ere, argi gutxiagorekin hobeki bilatzen zuen eskuak ahoko bidea. Ez genekien zertaz hitzeging, mihian lokarriak izan bagenitu bezala.

-Zuek lasai! dio gure gizonak. Eta gero:

-Hasi!!!

Erloju txiki bat ezkerreko eskuan eta txumadunaren tresna tik-tik-tik presaka antzean, ez da beste zentzajerik gela hartan. Ezkerretik eskubira biratu du lehenik *txoria ateratzen deneko* leihotxo. Eraztun bati itzulia eman dio gero, bakoitzaren sudurra gertutik ateratzeko...

-Aski -agindu du nagusiak erlojutxoari begira. Gelaren beste txoko batetik hartu behar genuke

mahaitik mugitzea. Tresna azpira heldu zaizkizu bestela.

Hitzik erantzun gabe baztatu da txumaduna. Argiak hilak ditu bitartean besteak, eta neurriak hartzen lagundu dio. Hamaikak dira.

-Laster bukatuko dugu gaurkoa.

-Ez da neke haundiko lana, erantzun diogu.

Azkeneko aldiz argia piztu duten garaian, zuzendariaren esanera alkitatik mugitu eta gelatik atera egin gara denok.

-Gure kontu gainerakoa, esan du berak. Gauza batzuk moztea etorriko zaigu; komeni dena utzi ta bestea kendu.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Ez zuten oztopo haundirik izan; berez da lana oso urria eta luzea. Larunbata zen eta biharamonean lanera joaterik ez. Pozik zeuden gure gizonak.

Herritarrak begira geunden bitartean puska guziak bildu zituzten beste hiruak. Gezurra dirudi zenbat gauza behar izaten duten.

-Zer edo zer utzi al genezake hemen?

-Bai, bai, bildurrik gabe; ez du inork ikutuko.

Aldameneko herrian: daude ostatur, eta badijoaz.
«Mercedes» haundia, etorri baino arinago joan da
puska gehienak hemen utzita.

Igandea. Hiru gizonak aldameneko herritik etorri orduko; zahar eta gazte, jaiko jantziekin ziren herrian. Etxe askotan orduren bat lehenago:hautsi dute gaur behiak barua; haurrak ere bigarren aldiz hotsegin gabe jeiki dira ohetik.

-Atzoko gizonak etorri ditun -zion andra batek besteari-; *zinea* egin behar omen dinate. Besteak beste, hori behintzat ez dinat galdu nahi.

Egun zoragarria argitu du. Iruzki ederra.

-Hobe -esan du zuzendariak-; gauaren beltza hobeki emango diogu argi honekin.

-Hori ere baduk, gero! Egun argiarekin gau beltza...

-Dena gezurra, dio bigarren batek.

-Ez; jakintza. Hago lasai, nahi eta ere ez diagu guk egingo.

Iturriak nun diren jakin nahi du nagusiak. Plazakoa da berriena. Ederra, hori bai. Dena harrizkoa, eta bur-nizko untzi haundia badu gainean. Lau leoien ahotatik dario ura. Mende honen hasierakoa da.

-Hauxe da guk behar duguna! Argazki onak gauza onak behar izaten ditu, eta hau ez da txarra. Beste itur-
riririk baduzue herrian?

-Iturriak hobeki dira hemen? Beste hiru behintzat bai.

-Goazen ikustera.

Bigarrena zaharragoa da. Etxe aurre bat bezala da -harriz egina. Kutxetan ikusten diren kurutze hoietakoa, erdi erdian; eta beherean jentilen harria.

-Jentil harria esan al duzu? galdetu du gure gizonak.

-Bai, jentilak egina omen da iturri hau. Irrutitik ekarri omen zuten harria. Aita alabak heldu omen ziren zoin bere harriekin eta, nun esaten duen alabak:

-Aita. Itxaran dezagun!

-Zer da hori? galdetu zion aitak. -Gelditu ta arnasa lasai hartzea.

-Hori jakin izan banu bi ekarriko nituen!

Metro pare bat luze eta beste bat zabal bazen jentilen harria. Duela denbora gutxi hautsia du, inoren baimenik gabe, gizajo batek.

-Iturria jatorra da; jentilen esaera jakingarria. Lekua dugu txarrena: zuloan sarturik dago ta argazkiak ateratzeko zabaltasun gutxi. Zoko hestuegia...

-Hirugarren iturria, aho bakarreko txorro mardula. Ugariena.

-Hau da iturriaren gozotasuna, esan du hiriko gizonak. Hauxe bai geurekin eraman behar dugula, argazkitan baizik ez bada ere.

Tresna bila dijoaz gazteak eta ni berei laguntzera. Hamarretan utzi ditugun lekuan arkitu ditugu herri agintariak. Bost dira, eta bero beroa mintzo:

-Urbasa mendian ere halaxe ibili ziren, esan du artzainak. Hango mando saldoa! Baina, mandoren bat hila agertu behar zutenean lastoz betetako zakukiak erabiltzen zituzten mandoak izan balira bezala. Eta nork ezagutu gero haragizkoa zen hala zakukia?

-Hori duk nik esaten dudana. Gezurrezko bizi batera jarriak garela eta ez dagoela hortik ateratzerik... Lehenago, huen hala; oraiko telebista ta gezur mordoiloak galdu diate mundua.

-Ni ere ibilia naiz zineko gizonekin mendian, dio artzainak. Nik ez dakit gezurra den ala egia haiek han egiten zutena. Baina, aste batez gaztaia egiten ez nuen irabazten nik, ardiekin aurrera eta atzera ordu pare batez ibiltzeagatik ematen zidatena.

-Dirua, hala; paper bustia?

-Asko nahi niakek hortatik!

-Ezin diat ulertu: goizetik gauera lanean izurraturik gabiltzenok, beti atorra ipurdira ezin helduz; eta beste batzuk...

Garaian garaiko gauzak. Txikitan taloa jaten genuen, eta ez beti nahi hainbat. Oraiko haurrak muzin egiten diote bezperako ogiari, eta behin baino gehiagotan txokolatea haizkan bota. Zu ta ni ordukoak gara eta mundua orai beste bide batetik dijoa.

-Bidea? Nahi niake jakin zer bide den lanik egin gabe bizitzera eramango gaituena! Norbaitek erein beharko dik garia!

-Eskuz egiten ez dena sudurreko haizearekin egingo da. Ezin dena, gu gizajuok bezala, gauzak indarkan egin. Hortarako, ikasi egiten da. Tontotako nahiko gara gu.

-Ikasi, bai, ikasi! Ikas behar haundiak ditiagu, Jainkoaren izenean. Gure etxean ez dik gehiago kasta batek aitzurrik hartu nahi. Sasi ta zapar badiagu baztarretan... Lotsagarri jabe ateratzea.

-Eta ez da jaten zuen etxean?

-Egunoro, Jainkoari eskerrak.

-Eta jantzi?

-Sekula ez bezala. Jantziak eta tripak asko behar dik gaurko egunean.

-Telebista ere baduzue?

-Bai; horrekin jango duk...

-Eta oihal garbitzekoa, xukaria, hozgailu eta bero-gailuak. Guk bezala. Hor ibili nintzen odol gaiztoa eginik semeekin burrukan: ez zuten artzain izan nahi. Neri, berriz, bihotza erdibitzen etxean beti ezagutu genituen ardiak uztea. Azkenean saldu egin behar izan nituen eta, egia esan, hobeki bizi naiz. Semeak autoerrementari onak atera zaizkit eta ez dute ardi beharrik.

-Baina, honek ekarriko dik bere itzulia! Gero ere jan egin beharko dik gizonak; esnea eta haragia emango duten kotxeak sortzen ez dituzten bitartean, artzain eta behizainak beharko ditiagu munduan.

-Laster garai bateko artzainen berri ez du inork jakingo. Kontuak atera, bestela; zenbat artzain ginen duela berrogei ta hamar urte gure herrian?

-Hamasei hemezortzi bat.

-Eta orai, bi baizik ez. Gainera, artzain gazte gutxi ikusiko duzu mendian. Berrogei ta hamar urtetik gorakoak gehienak. Dozena bat urtez, hirurogei ratuak izango dira bizi direnak. Zer derizkiozu?

-Artzain biek orai, orduan berri guziak hainbat ardi badute sarean.

-Gauzak aldatu egin direla esan nahi du horrek, eta gu ibiltzen ginen eran ez dela inor ibiliko. Zure etxean gertatuko dena: lurrak utzi ta semeak oletara. Trator bat gehiago da hamar idi pare baino. Nekazari gutxi geldituko da baztarretan eta haiek eramango dituzte herritako lur guziak.

-Bai, hori hala duk; eta badakik zoin gogorra den etxea ta lurrak larrak janik ikustea? Ni bizi naizen bitartean behintzat orai arte bezala izango duk eta, gero nahi dutena egin dezatela.

Plazako iturri ondoan zein bere alde lanean ari da jendea. Mikel Gotzoni eman diote pitxerra, eta hobeki egin nahaian hestutu egiten da mutila. Txuma ori ta larru zuria; lasterkari ona.

-Esku batekin untzia eta gorputza erdi itzulirik, laster egiteko begira -esan du zuzendariak.

Bi edo hiru aldiz egin behar izan dute eta azke-nean atera da.

Tresna guziak hartu ta bigarren iturrira. Adin bereko beste gazte bati eman diote lurrezko pitxerra.

-Askatu gorputza, jaso gehieago burua ordua entzuteko zai bazeunde bezala. Orai!

Laster aldia eta uraren eskeintza. Hamabiak dira. Eskuz esku joan da edontzia. Jende asko inguruan.

Txumadunak oihal azpitik burua atera duenean izerditan zegon.

- Luzegi azken bau, esan dio nagusiari.
- Komeni dena hartuko dugu, eta bestea utz.

Eguerdi. Uda aurreko bero samina eguteraan. Nunbait dago Eguberritako egun hotzen giroa. Barnera sartu ta sukaldean gaude zuzendaria ta biok:

-Entzun duzu gure gizonen sesioa?

-Bai. Aho zabalik egona naiz entzuten. Ez da halako libururik munduan, erantzun dit jakintsuak.

-Eritzi oso ezberdinak, ez da hala?

-Bizia bera bezala. Bi aldetara urak ixurtzen dituen mendi gailurra. Aldakuntza sakon baten muga.

-Gizon irekia artzaina...

-Bai, sei urtetan mendira joana. Baina nekazariaren arrazoiak ere ez ziren makalak.

-Duela berrogei ta hamar urte bezala nola biziko gara ba?

-Ez da hori berak esan nahi zuena; orduan baino hobeki bizi dela aitortu du. Etxeak eta lurrak, bere aurrekoen lokarriak ematen dio min. Egia da artzainak ere bere ardiak utzi behar izan dituela; baina, ez du Urbasa mendian ezer galdu, ez zen berea. Txabola bera ere ezin du ez saldu eta ez erosi. Ardiak dituen bitartean baliatzeko eskubidea bakarrik ematen dio legeak. Artzainaren zainak ez dira nekazariarenak

bezain sakonak. Artzaina arditatik bizi da; etxearenda-ko ari da, berriz, nekazaria bere bizi guzian lanean.

-Uste al duzu hortaraino heldu gintezkeen?

-Nik bezalaxe entzun duzu. Beren bizimoduan sar-turik zaude eta gerta liteke oihanak ingurua ikusten ez uztea; baina garbi aski adierazi digute.

-Eta berek konturatzen al dira?

-Ez gu konturatzen garen bezala; baina, senditu bai. Barne-minez mintzo zen gizona. Min hori zertatik zetorren argitzea ez da beren egitekoa. Gaizki batek barnean darama gaitzaren borroka, baina sendagilea da nundik datorren esan behar duena. Hori da bere egitekoa.

-Eta, orduan, hainbeste garrantzi du Euskal Herrian etxeak?

-Ezin ukatua. Begien aurrean ikusi duguna jaso nahi ez duenak ikus beza gure paper zaharrek diote-na. Etxea seme batentzat utzi izan da, ez zatitzeko adieraziaz. Eta etxaldea puskatzen duten ondorengo-
endako madarikazio garrantzak ere ikasi izan ditugu.

-Hori besterik ez baduzu zorpean etxea saldu ondorean berriz eskuratzeko Ameriketara joan diren semeak ezagutzen ditut; eta bai itzuli eta aita amen etxez jabetu ere.

-Artzaina berriz, neguan bazketara dijoa eta han artaldearendako bizibide hobeak arkitzen badu, ez zaio bertan gelditzen ajola haundirik: Hori ere ikusten da gure herrian.

-Eta nekazari eta artzain direnak, zer?

-Ikusi behar zoin jokabideak duen garrantzi handiena. Lehenik nekazari baliak bada eta, bitartean ardi batzuen jabe, etxeari itsasirik biziko da eta nekazari baliak bezala da. Bestela, artzaitako emazu.

-Herri-jakintza, beraz, ez da sasi-jakintza?

-Ez, herri-jakintza ez da bigarren mailako jakintzaria. Herri baten izaera, jatorria, gizonak bere joan-etorri guzietan, mendez mende idatzitako liburu jakingarria dugu. Bere hizkuntza berexia badu. Gure ohitura, pentsabide eta giza-mailan daramagun guzietan esaten dogu herri-jakintza. Odolean datorkigu.

-Herri bezala hartzen badugu eta odolean bada-tor, gizonak ere berdintsu izan behar lukete...?

-Ingurutik datorkion indarrak mugatzen du, batzutan, gizona; kanpotik barnerako joerak. Itsas gizona txalupari loturik biziko da, nekazaria lurrari bezala: lanbide ezberdinak, ura eta lehorra biak bi dira ta. Ez da berdina lur beroko ala elurtetako bizitza; ez eta ere mendialdea eta Herribera. Bestealde, norberaren

ekinza barnetik kanporako indarka eta borroka besterik ez da dagoenez baliatu eta bizitzen joatea. Ehizatik bizi denak azeri eta erbien berri jakingo du; eta arrantzatik bere ogibidea duenek, atun eta legatzena. Denen bildumari esaten zaio herri-jakintza.

-Hala esanik oso gauza erraza dirudi; baina, besterik dan egunoroko bizia...

-Bizia, berez, aldakorra da haurtzarotik zahartzarora dijoan gizona bezala. Ez da askako ur geldia, eihara azpiko ur zurruta baizik. Denbora bakoitzak bere giro ta joer berexia badu, eta garaiko kutsuarekin ikusi behar da gizona.

Berandutzen ari ta, nere laguna badijoa. Bildurra ematen du autoan sartzeak: bero zakarra. Txumaduna aurrean, bizardunak berriz atzean. Txoko guziak erremenduz bete ahala beteak.

-Nola nahi dela -dio anka bat barnean duela nagusiak- gizon hauen arrazoibidea betiko Joan zaigun gizarte baten aztarka dela esan dezakegu. Hiritarrak arinago hartzen ditu gauzak eta presaka bizi da. Base-ritarrak bere askatasun paregabea, *galtzera dijoan zerbeit bezala ikusten ditu denbora berriak*. Ez du nahi duena egiterik izango; etxaldearen itzala, aurrekoen babesa eta, bere nortasuna galdu ta, zer irabaziko

duen ez jakin. Bere buruaren jabe izatetik, inor ezer ez den artalde batean galtzea...

Bat batean, zerbait ahaztu izan ba litzaio bezala, zutitu egin da eta 'Mercedes' beltzaren atzera dioa. Beste bi gazteak ere mugitu dira. Zorro zuri batetik halako zer bat atera ta:

-Har zazu hau -esan dit-; zure magnetofoiaren neurriko zinta da. Bete mesedez neretzat. Gure aurrekoen jakintzarekin hausten goaz; mila une askotako lokarriak galduko dira. Arrazoi du baserritarrak: nortasuna ez da diruz neurtu laiken gauza. Jaso ahal duzuna.

Zortzi-hamar urteko mutiko batzuk guri begira egon dira geldi geldi. Hezur ta larru besterik ez den txakur gizajo bat daramate, soka latz arrunt batekin lepotik hartuta. Haunditxo da.

-Bazkaldu al duzue? galdegin diet.

-Bai...

-Noren txakurra da?

-Geurea.

-Eta nora eramaten duzue?

-Hil egin behar dugu.

-Zuek?

-Bai.

Ez gider eta ez munduko, noizbait labana izanda-ko burni zaharra darama batek eskuan. Ezin du urik ere ebaki

-Eta horrekin? esan diot nik.

-Hombre!!! (Ikustekoa zen hitzari eman dion indarra).

Begiak apal, haurtxo haien esanera dago gaixo txakurra, munduan adiskide bakarrak dituelako uste osoan.

Artzain txakurra dirudi. Ardi gehiago izaten zen garaian bazuten izen ona eta lana. Esker on gutxi, noski orduan ere. Artzainaren atzetik sartu zen Euskal Herrian axeri kastako txakur txiki urre antzekoa. Ernea ta bizia, gizon bat gehiago zen bere horrekin, lau artzain korrikan baino. Erribera aldetik ekarri omen zuten Urbasa mendira.

Ezin dut burutik kendu, haur zar hoi en joera delata. Gustora kenduko nien eskutik. Artzain zaharrei entzun izan diedanez, axeri kutsu gehiago omen zuten hasieran, orai baino. Joera txarra ere bai. Odoltzale amurratua izanki, ez omen zuen iduri. Nagusiaren ardiak zainduko zituen eta beste nunbait haragia egin. Kalte haundiak egin ondoan konturatu ziren hortaz.

Hara nola gertatu zen. Urbasa mendiz hego aldetil zurrun-burrun txarrak zetozen: bi buru gaur eta bestean hiru, artaldetan, makur haundiak gertatzen ari. Axeriren bat zela zioten nagusiek. Axeri hozkada txikia izan ohi da eta sarri sarria, emana. Orratzez bezala zulatzen du larrua eta sareturik uzten ardiari lepoa. Otsoak, berriz, indar haundiko letaginak ditu eta zarrata egiten dio.

Goiz batez, argisenti aurretik ikusi dute egurketa-ri batzuk Udargi-ko txakurra portu inguruan, hego aldetik etortzen. Bai nagusiak zer edo zer, entzun ere. Bainan, ezin zuen halakorik pentsatu. Txabola aurrean, berak utzitako lekuan harrapatzen zuen beti goizetan. Ken dezadan hori burutik, zion bere baitan; ezin duk hau izan!

Bestetan baino lehenxeago igo da goiz batez, edo txabolan esnatu, berdin zait. Bildurrez badijoa, kanpora eta nun ikusten duen txakur kafia hutsik. Bere bizi-ko zartada eman dio bihotzak. Badator, handik laster, txakurra eta burua uzkur, bildurtu egin da nagusia ikusten.

-A bai! Hi haiz; Heure buruak salatzen hau. Jo buruan eta bota du. Ez omen handik aurrera hego aldean haragi konturik entzun.

-Ez al dizue animalia honen minak zuen bihotz txikia ikutzen? esan diet nik mutiko koskor haiei.

-Jaberik ez du, dio txikienak. Guregana etortzen da eta horren beharrik ez da gure etxean.

-Aitak badaki?

-Uzten digu...

-Hozkaka hasiko zaizue eta orduan izango dira kontuak.

-Bai; bainan, lotu egingo dugu...

Barnea lazturik, onik gabe sartu naiz etxean. Txerria hiltzen ez ikusteagatik etxetik alde egin dut nik hauen adinean. Hontan ere bada gure denboratik aldaketa haundia. Eta zorioneko txoko baketsuan bizi ginela zion, halare, hiriko gizonak.

-Ardi faltan kale dantzan dabiltz gure artzain txakurrak; laxoan. Fabrikan ez da hoientzat lanik atera, eta zaparrak hartua du bitartean mendiko bidea. Zer ondore datorkio gure txakurrari?

UDA

Ikasle haunditxoan mintzoa zurrun burrun, goizeko zortzitan. Aldian behin, garraxiren bat edo beste, irrutian agertu den lagunari. Neskatxa guziak erderaz; mutilak, ez. Etsaminak.

Ni ere bidez nijoa eta zortzitako autoa hartu behar berek bezala. Askotxo gara zai gaudenak. Seiren bat jende larri, eta gaztetxo saila beren liburu mordoe-kin. Hamalau-hamabost urteko oilandatxoak inguratu dira elgarrengana. Begizulo hits eta aurpegi luzeak; astelehena.

-...Atzo zer? -galdetu diote txikienari.

-Oso ongi, erantzun du. Gauza onak gutxi irauten..

-Mutiko polita ematen din.

-Esaten den guzia gutxi dun. Eta 'Pipas' zer?

-Ja, ja, ja!!! entzun da bost ahotatik batera. Denok begira gelditu gatzazkie. Ni gertu nengoen eta ez dut burua itzuli nahi izan. Elkarri begiratu ta, burua apalduz, ezpainak hestutu dituzte.

-*Si es más tonto que abundio*, dio ixilka, batek.

-Hala baino hobeki besarkatzen hinduen! Lokartu!!

-Eta gusta gaineratik kentzea! Hura asegarria...

-Zer esan zinan muturrekoa ematean?

-*Dame otra, preciosa; me gusta.*

-Afaldu gabe, orduan, etxera?

-Ez. Koxko-ren kontu hartu genuan kafesnea loar eta biok; eta gero, ordu bietan etxera.

Lehenbiziko autoa zetorren eta banatu egin dira. Mintzatuko gaitun, zioten elkarri. Baina, autoak kale egin du. Kokahala betea zen.

Hamabi urteko mutikoak aste guziko puskekin ez dira mugitu ere. Jakin, nunbait, lehebizikoak ez zituela hartzen. Txabola egiten dabilta basoan, udan joateko.

-Ikastaroa ongi ateratzen badiat bizikleta bat erosiko zidate etxean, dio batek.

-Kanping egiteko oihalezko aterpea nahiago diat nik.

-Nik, berriz, «fla-fla», txoriak hiltzeko eskopeta txikia...

-...eta nik ere bai.

Zortzi bederatzi badira eta besteak ixilkk daude. Ez dute, nunbait, halako itxaropen haundirik. Izan ere, bakoitzak daki bere berri eta familia batzuek badezakete, eta besteak ez. Haurrak hori oso barnean eramatan dute.

Zortziak eta laurden. Bigarrenak ere ez zuen gure beharrik; lepahezurreraino beterik zetorren. Hiru ikasle haundienak ixil antzean daude. Hamazazpi urteko mutilak, eta Ikastetxe N gusian ari:

-Ni ez nauk heltzen, dio batek. Bederatzitan ditiat etsaminak.

-Zazpitakoan joan behar buen!

-Lauetaraino liburuekin ibili nauk eta gero ez diat txirrira entzun.

-Nun sartu hintzen atzo?

-Etxe zuloan. Asko eskatzen zaiguk eta...

-Ni ere ordu pare bat bakarrik atera ninduken.

Halakotan ez duk gogo haundirik egoten. Nahiago nitek ahaztuak balira egun hauek.

-Gesldituko al zaik bat edo bat udako!

-Bat baizik ez balitz...

Kideko neskatxa bat sartu zaie. Aurpegi alaia eta trebearen itxura du. Elkarren berri ongi dakite:

-Ez dik, ez, honek udako lanik utziko!

Hala uste duzue! Ia aurten porrot egitet dudan!

-Hik beti hala esaten dun, eta gero...txispak. Hiru ilabetez hau eta bestea egin dunala entzuten ari behar gu etxean... Ez gaitun denok hartze berekoak. Nik aurten asko estudiatu dinat.

-Nik ez. Inoiz baino gutxiago, erantzun dio neskak;
aurten ez diat ateratzen kursoa.

-Lehenbiziko aldia izango dun.

-Beranduegi hasi nauk.

Noizbait etorri da gure aldia. Hirugarrenak hartu gaitu eta bagoaz gure bidean. Lantegian mina hartu-tako gizaki bat jarri da nere ondoan. Burni batek anka zapaldu eta kisuturik egona denbora luzean. Kendua diote kisua, baina gogor gelditu da. Egunoro joaten da lotura biguintzeko mainuak hartzera. Lelen ere gertatu naiz halaxe beraren alboan.

Hau ibilera! esan du. Inor ez dagoke etxean. Herrian geldi asko egiten ginen garai batez...

-Astelehenean beti gehiago, erantzun diot.

-Nork esan behar zuen herri hauetako jendea hala mugituko zenik! Eta eskoletan dabilten haur hauek guziak! Ez genuen guk liburu asko ikasi. Sekula lurrean ikusten hasi orduko itaurreko bidaltzen gintuzten. Hori zen gure eskola.

-Eta urte guzian berdin?

-Itaurreko ez bazen, gaztainak biltzen. Beste batzutan, gurasoak soroan eta gu haurrari edo suari kasu egiten... Ikasle txarrak izango ginen; baina, aita amak ere ez gintuzten bultzatzen. Langilearendako

denbora txarrak zetozela, entzuten genien; lumak jan behar zuela mundua, «Liburu zikin!», zenbat aldiz esan ote zen gure aurrean. Liburu gutxi eta lana ugari, ez zen besterik orduan.

-Emakumearendako ere berdin?

-...edo gehiago. Gizona ogi bila kanpora, eta emakumearentzat etxea, haurrak eta alorrak. Loteria gogorra izan da gure bizia.

Herri polita da Udargi. Banakatuak ditu etxe gehienak. Lehen lohi eta kozpila baizik ez zen lekuan, orai karrika garbiak. Arratoiak argiaren haritik joaten omen ziren etxerik etxe. Herria;bi alde hausten zuen erreka zuloan biltzen ziren denak. Hango feria! Orai txukuna da.

Igandea etxean igaro duten soldadu bi jetxi dira bidean. Amaren ikutua ikusten da arropan.

-Hauek ez dakite zer den soldadutza, esan du nere lagunak. Bost urte bota nituen nik arropa hortan zorriz josita. Zer da firi-fara gaur *puente* ta bihar festa ilabete batzuk botatzea? Egon beharra, beste nekerik ez du gizona.

-Gerra denboran zinen zu?

-Bai; eta beste bi urtez, gosea genuela egunoroko janaria. Han da bizitzen ikasten, han! Ez nekien erde-

raz, eta agintari kaxkar batek gorriak eta beltzak erakutsi zizkidan. Ahoskera gaiztoko gizona, zeru lurrak zikintzen zituen. Egun batez jo egin ninduen lagundi guziaren aurrean. Nere sentimentua! Baina, badira beti jatorrak eta izan zen bat alde atera zitzaidana. Estudiante euskalduna, zazpi mila itzuili eta bi gehiagorik ematen zizkion sarjento larri beltzari:

-Ez duzu, Jauna, hori egiteko eskubiderik, esan zion; Agintari Nagusiak jakinen du. Mutil hau ez dago hemen berak nahi duelako; baserrira joan zaizkio bila. Erderarik ez badaki erakutsi egin behar zaio; eta bestela, zerorrek euskera ikasi elkar ulertzeko. Gizatxarraren bildurra! Beroaldi baten gauza izan zela aitortu zidan eta barkazio eskatu.

-*Frentera* eraman gintuzten handik. Han trebe nintzen ni. *Galonak* zeuzkan baina ez nuen gizatxarraren bildurrik. Begitan hartua genuen denok eta gure eskuetik joango zen, ez balu alde egin: Ikasi nuen bai, ikasi, erderaz...

Iruñen gara. Gazte samaldak, lasterka; etsaminak hasiak izango dira. Udargi-ko hamar mutikotatik zortzi herritik kanpo dabil eskolan, behin hamar urtetik aurrera. Neskak ere asko. Konturatzen ote dira erdiak gurasoei gostatzen zaiena?

-Gu baino gehiago izan daitezela behintzat entzun diet askotan.

Aldakuntza haundia ikusten da gaur gure herritan. Azken une hauetako gauza da. Jantzia ta jana bada; baina, zerbait gehixago nahi du jendeak. *Tontotako nahiko gaituk gu*, esan zuen artzainak. Ikasiko ote dugu gure nortasuna geldu gabe goi mailako jakintzara heltzen? Kezka.

Jende gutxi zen karrikan ni etxetik ateratzean. Hobe. Manetofioia neraman eta batzuk usteko dute jostatzeko dela. Atsaldeko seiak dira. Madrilgo gizonak utzitako zintak bultzatuta nabil. Lotsa ematen dit garbi eukitzea. Haurtxo batzuk eskola aldetik datoz; baina atsaldean eskolarik ez dute. Erdi-opor, uda-aurrea; ebaluazio edo etsamina berriak.

Sokatik eramaten ikusia nuen txakurra atera zait, aurrez-aurre, etxarte batean. Ikaratu egin da eta badijoa zetorren aldera. Ni poztu, berriz, bat-batean. *Bizi da!*, esan dut nere baitan: Ez dakit txakurraren biziak emandak poza den, ala bere hiltzaleen biguintzeak. Nola nahi dela, hor dago: bizi da.

-Norena da txakur hori?, galdetu diot ezer jakin ez banu bezala eskolako haurrei.

-»Txutxo» *da!* erantzun dit sei urteko neskatxa eder batek. Mutiko haundiak ibaira bota zutena...

Han joan dira nere pozak. Ez zioten, beraz, kupituri bizia barkatu; ahalegindu ziren azkeneraino beren asmo beltza betetzen.

-Ibaira bota bazuten nola ez zen ito?

-Soka hautsi ta, atera bai zen...

-...eta ez diote orai ezer egiten?

-Ihes egiten du eta ezin dute harrapatu.

-...ikasi du nor diren, eta zer asmo zuten. «Txutxo gose dabil eta, beharbada, goseak eraginik oilategiren batean sartuko da eta arraultzeak jan. Gero esango dute gaiztoa dela, eta norbaitek ttiroz botako du. Bizian bazartua.

Neretzat «Txutxo», gaur arte izenik ere ez nekien txakurra, bide txarrean sartu den gizadiaren irudia da. Gazte haiek, zortzi hamar urteko haur motzak, odolgiroa daramate bihotzean. Txakur gose baten oina-zeak ez die minik ematen; bizidun baten odola dute jostagailu. Edo ibaian ito-arazteko soka. Nork erein du bihotz txiki hoietan hazi garratza? Ez ote gara denok hobendun?

Ikusia ikasten du haurrak, eta argizaigilearen etxean erortzen ez dena lerratu egiten da. Bildurgarri zait zezen lasterketa TV-an, eta ez nuke haurrentzat tiro-kontu, eta zapalketa bortitzik emango nik. *Indioen* oihuekin esnatzen dira gero gauaz ametsetan.

«Txutxo» udaberrian baino hobeki da, haragiz ez bada ere, jakintzaz behintzat. Lepoko soka, urkabidea, bota du; adiskidetzat zeuzkanak ezagutu ditu eta inun lagunik ez duela badaki. Alde bat ; laguntzarrekin baino bakarrik hobe.

Herri goienez laurogei ta bost urteko aitona topatu dut. Sugaiak daramazki, neguan bezala:

-San Joanetan egur bila! Buruzpide ona!

-Zuk esan. Iruzkia ere, nunbait alfertu egin zaigu; ez du berotu nahi. Noiz ikusi da urteko egunik luzeezanean sutondoko giroa!

Ez haundi ta ez txiki kunkurtu antza Burua txuri eta begiak argi: gizon polita. Gerritik gora ez du gaitzik, burua ongi; anak ez balitu hain nagi! Ladux.

-Ezkerreko izter honek lotzen nau, gizona...

-Zer nahi duzu! erantzun diot; atzean utzitako laurogei ta bost hoiendorea.

-Eskubiak beste horrenbeste baduzkela esan liteke ba...

-Bai; hori ere hala da. Gauzak.

Mandozain herria izana da, noizbait, Udargi. Ongi bizi omen zen jendea. Arma-harri asko da etxetan. Estallerri eta Erriberako ardoa eramaten zuten Prointzira. Zaragoza jotzen zuten, beste alde hemezortzigarren mendean.

-*Galera* izeneko gurdi haunditan zebiltzan orduan. Tresna horrek zapaldu zituen bizkarkako mandozainak; eta trenak baztatu zituen manda-gurdiak. Bizia hala da.

-Haurtzarotik aldaketa haundiak ezagutuko zenituen zuk herrian?

-Uuuu laa!! (ixilune bat) Eta nola adierazi? Gaurko haurrak ez dute, sinesten; gure asmaketa balitz bezala hartzen dute garai bateko bizia.

Magnetofonia piztua dut. Berak ez daki zer den hori eta lasai mintzo zait. Madrilen jakinen dira Ladux-en gauzak.

-Bederatzi urtetan hasi nintzen ni txertzai; hama-bitan egin ninduten haltsai, eta herriko behi guziak zaintzen nituen. Handik laster, makila eskuan eramateko gauza izan nintzenetik, oihan-mutil edo goarda. Basoko aritz eta mendiko pago guzien berri banekien nik azkenean. Txori ta basa-pisti guziak ezagutzen ninduten eta nik ere bai bakoitzaren kantua. Seiak aldera jeikitzen nintzen uda denboran. Lehenago ere bai, askotan. Oihaneko musikak zoratzen ninduen. Polita da txoritxoan abestia; zoragarria... egazti mota askoren doinua erreberitu dit Ladux-ek. Ezin hitzez adierazi; magnetofonez jaso dut eta behin baino gehiagotan entzun dut geroztik.

-Zer jaten zenuten?

-Jan! Ahal zena. Sardina gauza haundia zen etxean; birendako sardina bat... eta pozik. Burua

harrapatzeagatik asarratzen ginen anaiak. Buztanak baino jaki gehiago zuen buruak. Aberatsak bakarrik jaten zuten ogia. Artirinarekin egindako opil haundi bat zen gu bezalako pobreen janaria.

Ladux-ek etorri ona du. Euskal Herriaren zorigaitza agertzen digute bere esamesek. Amestu ere ezin diren zirritu beltzak:

-Hamazazpi urtetan Bizkai aldera joan nintzen. Hura zen herriko gizaki guzien joera. *Puentenuevo*-ko harzulo ta minetan eman zidaten lana. Hango gure bizimodua ez esateko hobea da. Goizeko seiretatik atsaldeko zazpitara lurpean sartuta. Eta zer lana! Kapataz haiek mandoendako eginak zituen Jainkoak. Ez zuten hitz bat bestea baino politagorik; zer ahoskerak!.

Eta makurrena, ez ginuela jaten ere. Behar bezala jan izan bagenu, janak eramango zuen gure irabazia. Zerbeit aurreratzeatik, erdi janean, goseak ibiltzen ginen beti. Gizonaren biziak oso gutxi balio zuen minetan. Eta bizirik ateratzen zena, bularretatik erre-ta itzultzen zen etxera...

Gure aita-amek hezurretaraino sartua zuten bildurra. Berri txarraren zai egoten ziren urte guzian. Orai esango dizut ene izeko bati gertatua. Sorra zen gai-

xoa, eta oso emakume ona. Pobre zarrapailtsua gu bezala.

Gau batez, txerriak kurruxka eta erausika hasi zitzaizkion etxean. Zerbait bazela konturatzen zen eta ez jakin zer.

-*Naun eta gure mutikoa dela!* esan zuen bere baitan. Beti txarrena gogoan.

-(...hotsak; lehenagoko hotsak)

-Miel-Anton, hi alhaiz? Pentsatzen nian, bai... Onez heldu haiz?

-(erantzunik ez).

Bihotza punpaka duela, erdi jantzian badator ama gaixoa ataria idekitzera -*Ba nian bildurra!*- zion bere baitan, eskiletak jeistean. *Zer egin behar diau orai, hi gaixotuta?*

Jetxi da, ataria zabaldu ta inor ez. Ilargi ederra zeruan eta izotza ari kanpoan. Goizeko hiruak. Txerri hotsak.

-Jesus, Jesus! Zer den sorra izatea! Ustez semea zen eta txerrien hotsa. Hala hobe.

-Bularretatik gaizkitzen zirenak laguntzarik bazuten?

-Lagundu? Bai zera! Atsaldeko zazpitan lanetik atera ta afari legea, egin orduko kapataza ondoan:

-Joan behar duk lanera? -galdetzen zigun.

-Ez ginen zuti egoteko gauza izaten, eta ezetz esaten bagenion kopeta txarra. Gau erdiraino berriz lanera. Goizeko seietatik egin zazu gau erdiraino lana. Ezin zuena etxera; eta gaixo zegoenak ezin zuen hori eta gutxiagorik ere. Hala despegitze gintuzten.

-Zenbat irabazten zenuten?

-Egunean bederatzi sueldo, eta eskonbrotan zebiltzenak hamaika.

-Zenbat denbora egon zinen Bizkaian?

-Zazpi urte.

-Euskalduna hala ibilia da, eta bestela Ameriketara joan behar. Ego Ameriketarako joera gehiago zuten, garai hartan, gure mutilak. Gero etorri zen Ipar aldeko artzainena.

Landux Nafarrora itzuli orduko olagintza (industria) hiru lau puntutan sartzen hasia zen eta hortaz baliatu zen bera. Gure dirudunak, halare, ez zuten bide hortatik jarraitu nahi; eragozpen haundiak ikusten zizkioten langileriari: nahasketak, ohitura onen arrisku, elizaren heriotza. Hitz batean esateko, infernuko etsaia bere galtza gorriekin. Horregatik, Nafarroan bazen dirua, baina eltze mututan sartua. Ez zen aurreramendu haundirik ikusiko denbora luzean.

Udargin ez zen dirurik ikusten, gizakiak minetatik ekartzen zutena ez bazen. Beste alde, familia haundiak izaten ziren eta emakumeak ere ogia ekarri behar.

-Udargi-ko emakumearen bizia latza izan da munduan, dio Laduxek. Inun baino gogorragoa. Ezkondu aurretik ihitera joaten zen Iruñerrira eta udazkenean subesketara Prointzira. Behin ezkonduz-gero aitzurra ta laia hartu ta lurrarekin borrokan.

-Gaztetan ere aterabidea bazuela esan duzu?

-Bai, beharko! San Joan eguna festa haundia izaten zen herrian. Lizar ostoz eta iraz betetzen ziren atal aurreak; soinua ta suak. Elizan, berriz, din-bi dan-ba gelditu gabe ezkilak. Urteko jairik politena. Gaueko hamarretaraino ibiltzen ziren neskixak dantzan. Gero, buruko azaletan beron puska guziak sartu ta gauaz Iruñera. Argi sentirako, Santo Domingo esaten dioten plazan salgai egoten ziren Udargiko langileak.

Berrogei ta gehiago kilometro bada Iruñera. Egun guziko dantza anka puntetan zutela egiten zuten, oinez, bide guzia. Ez zen autorik orai bezala. Eta lorik gabe gari epaitzera...

-Lanaren arabera ordaintzen zieten: hemezortzi sueldo eta libera bat ogi, erregu-herriko. Lau pezta ta

erdi, alegia. Behar zuten baba guzia ematen zien gainera nagusiak. Okela beren kontu. Etxe batzutan ardoa eskaintzen zieten eta beste batzutan ez. Obanos, Gares eta Santa Feliziaren berri ongi bazekien hemengo emakumeak. Baina, ez zuen beti denbora ona egiten; orduan baba bakarrik botatzen zien nagusiak.

-Ikusten denez, baba hutsean bizi ziren gaixoak?

-Etxetik eramaten zuten urdaia eta hori sartzen zioten eltzeari koipetako. Denbora berean okeletako balio zien. Sasoi hobereneko jendea.

-Sosarekin zer egiten zuten?

-Jantzi lehenik; emakume ziren oraikoak bezala. Bi, hiru eta lau gona berdin jazten zituen festetan emakumeak. Ondotxo zegoenak, gehiago. Gona gorri eta nabarrak izaten ziren. Txori-begidun eta marra luzeak. Denen azpitik, mihixazko zuria. Manton ederrak ere agertzen ziren, etxean gelditu ziren lagunen indibidiagarri. Hori zen orduko fantesi guzia.

-Subesketa ere aipatu duzu?

-Liho lanari esaten zioten subesketa. Gure ardazketa. Iruinera San Joan bezperan bezala, Andra Mari urriko egunean joan ohi ziren Prointzira. Gehienek

hartuak zituzten beren etxeak. Altsasuko feritan itzul-
tzeko joaten ziren batzuk eta Gabonetaraino besteak.

Entzuna diot norbaiti nagusi moxkorrarekin izan
zuen bildurra. Bestela ona omen zen gizajoa; besoa
gehiegi jasotzen. Gau batez etxeoandrea falta eta
bera bakarrik gertatu etxean. Nagusia, beti bezala
ostatuan. Anketako lokarriak kendu eta itxi omen zion
barnetik ataria. Heldu da, noizbait, gizon hori eta has-
ten da ate joka:

-Arraioa! Zabaldu ataria!

(neskamea ixil.)

-Nun da etxeoandrea?

-Ez da oraindik etorri.

-Ireki zuk...

-Argitu arte ez diot nik inori sarrerarik ematen.

-Apereju ona ez zera zu, Nafarroatik etorri ta etxez
jabetu!

Biharamonean etxeoandreari gertaera -pasai-
zua- kontatu ondoan, etxe hartatik :alde egitea hobe
lukeela adierazten dio:

-Ez, gaixoa -erantzuten dio etxeoandreak-; Jain-
koak emandako gurutzea jasan behar du bakoitxak.

Denborarekin, beste edozein lani lotzen ziren
Prointzian. Ira (garoa) biltzen eta berdin sagarditan.

* * *

Gaurko egoera zortzi hamar urtez lortu da Udargin. Herria ustutze zijoan. Frantzia eta Suiza aldeko, oihan lanak erremen kiratsa utzi zuen oraiko gaztetan. Ez zen, han ere, baratze guzia lore. Beti gertatzen dena, batzuen izerdiaz beste batzuk balia.

Alpes menditako itzuliaren ondotik Prointziako lan-tegitako gurutze bidea. Zortzietan lanera sartzeko sei ta erdietan, gutxienez, jeiki behar. Trena hala autobu-sa hartu; ordu galduak. Irabazirik ez eta lanean haste-rako gastu bat egina. Atsaldean lanetik atera ta, etxe-ra orduko gaueko hamarrak. Eta Udargi-ko neguak ez dira motorrean joan etorrika ibiltzekoak. Jakiak eta ostatuak, berriz, asko eramaten du gaurko egunean.

Udargi-ko jendea, egia esateko herrikoia da. Eta, ez gaiztoa, askok uste duten bezala; azal gogorrekoa bai, behar bada. Nunahi gertatzen dena, badira ere larru-xuri hitz leunak, eta hoiiek ematen didate bildurra. Lagunen saretatik gorde nazala Jainkoak, etsaie-netatik neroni aterako naiz.

Herrikoia izatea zerbait da, baina beharrak bultzatzen du azkenean gizona. Eta, esan dena, herria hus-

tutzen zijoan. Lanik ez zen eta lantegi ingurura ezkon-
tzen ziren gazteak. Bitartean, etxe zaharrak belartegi
eta, gerota kafi gehiago hutsik.

Fabrikaren bat ekartzeko gogoia zaharra zen
herrian. Azken urte hauetako agintarien joera ikusita,
ez dagoen zulotik dirua ateratzeko prest dago jendea.
Lehenbiziko urratsak eman ere bai: lurrak erosi, urak
hartu, argia ekarri eta zor haundi baten emaitza gozoa
erromesa guziei eskaini. Gertatzekoa zena etorri zen
orduan: uda aurretik kukua, eta kuku maltzuraren
gezurretan erori ziren denak. Haizeak ereman zuen,
gero, amets haundien hostajea.

Ladux-en bizi gailurretik herriari begiratua ema-
tea, bide mehar neketsuen ondoreaz jabetzea da. Ez
da bat bateko lana izan herrian fabrika bat sartzea; ez
eta ere erraza. Orai horda. Uda.

Goiztegi latza sortu da gaur Udargi-n. Denbora luzean ez aztutzeko modukoa. Goizeko ordu bietatik hiruak arte hortan kamioi biek jo dute elkar. Burnizko maitaleen musu ixilean itsasiak, han daude biak hautsirik. Gidari baten alderdia arrapatuago da bestearena baino. Nork daki han gertatua!

Hots haundiko muturrekoa izan da. Inguruko etxetatik erdi jantzian dator jendea; leiho zirritutik begira daude beste asko. Han hemenka atari kirrinkak eta jende mintzoa. Bietan bat, burnizko barrikadun erre-mendua, ura dariola dago. Sudurrak erretzen dituen usai bizia zabaltzen hasia da; *acido*, dio kamioiak. Ez da beraz ardoa... Gidaria bi eskuekin mototsak hartu eta ezin-egon larrian ikusten da:

-Hots egin goardiei, mesedez! Jeikiarazi inguruko etxetako jende guziak! Pozoina da! esan du azkenean.

-Pozoina... pozoina... pozoina..., errepikatu dute ilunpean aho guziak; eta gauak iretsi balitu bezala joan dira denak. Bakarrik gelditu da gizona.

-Laguntza behar dut; ez nazazuela bakarrik utz! zion garrasiz esku itxiekin bere kamioiari joka. Ilargi gabeko gau garbia da; mila izarren begi txikiak zerutik keinuka. Gizonaren garrasiak beste testigurik ez du

munduan. Lepraduna, baztartua, hautsia *acido* delako pertzaren iturri ondoan. Pozoinaren hitzak bildur gogorra sartu du herrian.

Telefonoz, halare, laguntza eskatua zuen norbaitek eta bidetako goardia bi agertu dira. Txoferrarekin mintzatu ta telefonora joan dira lasterka:

-azidoa dario eta arrisku haundian dago herria, adierazi dio besteren bati. Deitu su-hiltzaleak eta herien autoa. Stop.

Kamioien ondoan ezin da egon. Zentzua kentzen du hango haize sapadak. Intzaren ikutuakin bezala bustia da gorputza.

-Nun da beste gizona? gaidetu du bidezainak.

Inork ez du erantzunik eman. Bi kamioi balin badi-ra, gidariak ere bi behintzat beharko zuten izan. Itzal beltza sartu da orai gizonen barnean. Eta nola ez dira lehenago konturatu?

Larruz jantzitako bidezainak begitaraino jetxi ditu kopetan zituen betaurreko haundiak. Eskua sudurretan duela eta bestean argia, ondoraino joan, eta barnea argitu du. Esnea bezain aurpegi zuri bat ikusi, eta argia hil egin du. Lehertu den kamioieko ura dario, par-par-par burutik behera.

-Hor dago, esan dio lagunari. Hila da.

-Pentsatzen nuen, erantzun du bestea.

Arnasgailuak behar ziren han sartzeko. Pozoin uraren kiratsa baztar guzitara hedatzen dijoa:

-Hustu lenbaitlen inguruko etxeak! Hori da egin dezakegun guzia, esan du goardiak. Haurra besoan duela atera da ama bat. Oihal zuritan kukutua du sortu berria. Ama gazte bat da; lehenbiziko haurra.

-Zer egin behar dut?, zion berak; inora joateko ez nago...

Etxe guzitan badira autoak eta hauzoko batek hartu du berean. Emagin etxera itzuliko ote zuten hitzegin ondorean, basoaldean bizi den adiskide batek eskaini dio ohea.

Lauak elizako erlojuan. Burniz jantzitako gizonak, sularien autoan. Marruma haundirik gabe agertu dira, ez bai zen animarik bidean. Arnasgailuekin estalia dute aurpegia. Urez betea, berriz, beren kamioiaren sabela. Gertutik hasi dira lehenik ura botatzen. Harriak su hartu balute bezala, laino beltza piztu du urak eta estali gizonak. Sularien kamioieko argia ito egiten du lurrunak. Lanbide txarra.

-Askatu lehenik ur pozointsuaren atzeko txorroa eta ustu dena, agindu du sularien buruak.

-Kasu; esan du txoferrak. Bizia jokutzen duzue. Bada saetsean tutu luze bat handik beharko litzake ustu errekarra. Arnasgailu bat uzten badidazue nero-nek lagunduko zaituztet.

Dakienak daki gauza bakoitzaren berri, ota berak lagundu die ustutzen.

Atertu gabe ura dario bitarten beste kamioiari. Sulariak ez dira ageri lainoan. Beren ura ustu orduko herriko iturriari lotua zioten urbidea. Indarrik aski ez bait zuen txorrokoak, sularien bonbak bultzatzen zien irrutira. Erlaino antzeko lanbro zurixkera zabaldua zen argi sentian, herri guzira.

Bostak.

-Hau luzeegi dijoa, dio bidezain larrudunak; erre-mendu hoiek elkarrengandik berexi beharrak daude nolabeit. Gizon baten gorputza hor dago barnean...

-Hain haundiak izan ez balira.. erantzun dio sularien nagusiak.

-Zuen deiarekin batean eskatua dugu jasaile (grua) bat. Hamar aldiz otortzeko denbora bazuen.

-Eta Udargi-n ez ote da hau tiratu lezakeen tresnari?

-Ez du pottoko txarra izan behar, esan du kamioieko txoferrak, bizkarrari eragin eta beste aldera itzulia

emanez. Azazkalik gabe gelditua da behatz muturrei hozkaka.

-Gizon hori ezin dugu hor utzi, dio berriz ere norbaitek.

-Eta zer egin? galdetu du suturik guardiak. Hori da gauza, moztu du sularien arduradunak.

Ordu erdi baten buruan? agertu da jasaile edo grua. Esan daiken guzia eta gehiago entzun du mutilak.

-Aizu!! Poliki, poliki! -erantzun dio berak goardia-ri-. Ni nere etxean bizi naiz, eta jasailea dagoen lekura joan egin behar da. Ni ez nau, gau eta egun han egoteko ordaintzen nagusiak. Tresna pisuak dira, gainera, eta beren denbora behar bidean. Zergatik ez daukazue zeurok bat eskura? (multak sartzeko luma izan balitz ez zintaten guregana etorriko, dio hitzerdika, erre mindurik).

Iruñeko jasailearen lana motza izan da: arnasgailua jantzi, gorputza zegoen kamioia atzetik hartu eta bide puska batean baztatu. Burni ta kristal parrasta erori da lurrera.

Zaurituen autoko argi oria piztuta, marruma mehe luzearekin belarriak lehertu nahian urbildu da kamioi hautsiaren ondora. Negarrari emango zion haurrik

egon balitz inguruan. Latza da tutu horren bihotz ondoko inarrosia.

Zuriz jantzitako gizon bi atera dira eta zerraldoa ondoan dutela kamioi hautsian sartu nahi izan dute sudurra. Ataria ezin zen ireki. Jasailearen burnizko lokarriekin tiratu eta, barnean ez zen gizonik. Ezurrak ere urtuak zituen pozoin urak elurra bezala. Txapela, zimurturik, jarralkiaren atzean; ziliportak ez ikutu, nunbait. Larru eta oihalezko azal guziak ere janak, burni gordinak agerian. Zorigaiztoko ura, ez da erre-keitu ona.

Gaxozainen lana egina da. Nornahi dela ere, etxe-koek ez dute berriz ikusten lanik izanen. Gizonak bere eskuz egindako tresnak, egilez jabetzen dira batzutan. Lehen ere baziren mandoen ostikoak; baina burnizko potoko hauen muturrekoak ez dira hobeak.

Herri guzian jakin da lurrenak irentsi duen gizonaren berria. Etxe guzitan badira beribillak; kotxea esan ohi du jendeak. Goizeko zortziak baino lehentxago, ez dagoen baten itzala ikusi nahian bezala, geldi geldi joaten ikusi ditugu Udargi-ko gizonak lanera. Eta gizon bat urtu litekeela surik gabeko lurren hotzean!

Mila arima ez duen herri txiki bateko hainbeste beribil pasatzen ikusi ta gogakaizturik gelditu naiz.

Askok ez dute lanerako auto beharrik; lana emateko baizik. Herrian dute gehienek lana, eta ez da bide luzea etxetik lantegira. Baina, hori gabe ezin dira bizi; zerbait falta zaie bizian. Zonbaitzuek beribilla da giza mailaren neurria. Lau urtez hiru auto aldatu duen langilea ezagutzen dut; eta besteren etxean errentan bizi da. Gazte jendeak ez du etxe berria egiten hasteko dirurik eskuan. Beribilla asmatu zuenak ez zuen inoiz buruan paastuko, etxea baino beharrezkoago gerta zekiokenik gizonari bere tresna. Hasieran zaharra erosten zen; orai apaltasuna da berria ez erostea. Eta txikiaren ondotik haundiagoa. Bizi guziko irabazien putzua.

Ongi begiratzuz, haurtzarotik atera ez den herri baten joera motza ikusten da jokabide hontan. Duela berrogei ta hamar urte nekaritzatik bizi zen erriko jendea. Oletako langile bakarrak oinez joaten ziren, zortzi hamar kilometroan zegoen lantegira. Oso aberatsak bakarrik zuten orduan beribilla. Beren izen eta haundikeria guziekin aipatzen dira, orai bertan ere, lehenbiziko autoak Nafarroan erosi zituzten gizonak. Aho zabalik gelditzen zen herriko jendea erremendu haiei begira.

Bi txirrikako ahuntza den bizikeleta sartu zen lehenik Udargin. Eta zorionekoa erosi zezakeana. Indar haundia hartu zuen; herri txikienetan ere bazen tresna ahul honen errementaria. Ongi joan zitzairen une batzuetan. Goma erre bat izaten zen orduan, eta baztarretik arrailtzen zen azala, errotaren inguru guzian. Gutxi irauten zuten eta asko zulatzen. Berriz hasia da, adar haundiagoekin, erdi hila zen tresna honen hazia ugaritzen.

Ankekin lagundu beharrik ez zuen zaldioa etorri zen gero. Baziren errota txikiko motorrak eta haundiak, gure herriko gazte guzien amesgarri. Etxe gehienetan bazen. Hamar-hamabi urteko erregetza izan da motorrena herritan. Hasieran zaharrarekin balin bada ere, lau zangoren gainean ibili nahi du gizonak. Goi maila., Inguruko aberatsek egazki bana ekartzen ez duten bitartean, beren abiona alegia, beribilla izango da herri xehearen helburua. Txikiak, ordea, haundia eskatzen du; eta igazkoak, azken atera berria. Hori da saltzaileak erein nahi duen kezka, eta sosa iresteko gose amorratua duen zizare-soka.

Bitartean, bideak ez dira hainbeste autorendako eginak. Goizeko ordubiak, beste alde garai txarra da festatik etortzeko, eta dantza-gelatik zetozen kaskari-

nen auto txikia ez zapaltzeagatik jo dute gaur, aurrez-aurre, bi kamioiek. Festa, dantza ta bizi nahia; astelehena, pozoin lurruna, heriotza... goizeko ordu bietan elkarrekin oztopoka.

Hori bai; axaletik gauzak ikusita, Udargi-n auto asko da eta oso onak. Etxe faltan, zero sapai izardunak. Uda gozoa.

Denbora berritako lasterka eta ezin egon guziak baztatu ez dituzten gauzak badira bizian. Piper pota eta untzi zaharrekin jeiki dira, argitu orduko, Udargiko haurrak. Zulo txiki batzuk egin zolatik eta lorraki luzea ezartzen diote goiko ertzean. San Joan bezpera da ta atsaldean sua eramateko prestatzen ari dira, ihaz bezala, eta zaharrenak diotenez, herrian beti ezagutu den eran. San Joan festaren ikurrina sua da.

Ilun nabarrean hasten dira ezkilak jotzen elizan eta gauerdi arte ariko dira. Mutilak berak astintzen dituzte, gauza haundia bezala, San Joanen poza adierazi nahi duten burnizko mihiak. Txiki eta haundi, anken gainean egoteko on den guziak egiten du gau hontan suaren legea. Eta haur txikiak ere bai, amaren altzoan.

Eskolako mutil koskorrendako luzeegia da egun guziko epea, eta bazkaldu orduko hasten dira pototan sua biltzen. Garai bateko ubal-harria bezala dute besoarekin itzulikatzen. Sua ez hiltzeko, noski. Beste batzuk basora joanak izango dira egurra eske.

Ihazko belar bedeinkatuekin piztu du edozein amatxik lehenbiziko sua. Frango argi da oraindik, eta arto jorratik denbora baino lehen heldu dira, ezkil-

gatik, gizonak etxerak *Nunbait sakristauak ez du guk hainbat lan arto jorran*, esan du nagusi zaharrak. *Ongi bete dugu eguna*, erantzun dio ilobak. *-Bai; bazen gehiagorendako tare. -Bai, noski mutil ona! Gu joan da ere beti izango da lana.*

Amonen sua, su txikia izaten da; belar bedeinkatuena. Arrisku gutxiko gauza. Beren neurrikoa. Baina, ez du utziko bizi den bitartean; besterik ezin badu, gona luzearen ertza pasatuko du, anka punta agiri duela, suaren gainean. Hiru aldiz bera, eta beste hiruz iloba txikia. Inguruko jendeak, halare, ez dio gauzak nahi bezala egiten uzten. Beste atari batzutara joan delarik jendea, ondar pindarrekin trebe da bera, eta orduantxe dizkio sarna guzien kontrako kemenak biltzen, erdi hila den suari. *San Joan gaua, gau haundia eta indarrez betia.*

Mutilen suak belar gutxi eta egur asko izaten du. Lanik aski ibiltzen dute aurreko egunetan sugaia biltzen. Gurdi zahar eta alki baldar, berdin mahai eta oheak elkarren gaineka metatzen dira, ihaz baino gutxiago behintzat ez izan nahian. Garraren muga, inguruko etxe teilatutan dago. Keiarena, zeruan; baina hori ez da kondatzen. Garrak du balio.

Suaren haundien haundienean han sartzea da koxka. Egur meta erortzen hasi arte ezin da gaintik jauzi egin: goregi. Gero ere, garrak estaltzen du gizona eta aho zabalik gelditzen dira, une batez, begira-leak. Behin baino gehiagotan gertatu da aurrez aurre bi, mutilek suaren erdian elkar jotzea ere: bekain ertza ideki bat gora behera erredurak du orduan lanik haundiena ematen. Norbaitek bizia galdu duenik ez dut inoiz entzuna.

Azken une hauetan, kamioi zaharren txirrika gomak erretzen hasia da jendea. Zahar berritzeko sua balin bazen uda sarrerakoa, ez da gaizki goma zaharrak erretzea. Belartegitako ondar zaharrak, eta orai-ko goma azalak, bi garaitako errebusak ohitura beraren iraupenean. Argi baino ilundura gehiago banatzen du erremendu hoiien salda egoskorrak. Beltza zelakotan gaua, beltzaren itzala dirudi zerua jotzen duen kedar abeak. Zer gauza itsusia!

Harri txabal bat ezartzen zuten gure aurreko zaharrek su hilaren gainean, eta han, aitzurrak eta orraxia. Biharamonean San Juanen buruko txumeak egon ohi omen ziren, txoriak pika mukian bezala arrapatuak. Burnizko hariz borobildutako koroï osoa jaso lezake gaur, txirrika beltzen arima ikustera joan nahi duenak.

Aurreramenduak. Makurrena, nunbaiteko emakume baten elizako liburuan ezin sartua izango litzake. Ez da, beraz, elizkoia. Deabrurena ote?

Iruzkiaren erregetza da uda denbora; eguna luze bere itzulia geldiki, patxadan, ematen joateko. Beroa dakar, edo ekarri beharko luke behintzat, iruzkiarekin udak; eta beroarekin uzta. Ondasun guzien iturri izan da antzinako gizonarentzat iruzkia. Ekaineko festak egin izan zaizkio urteko egunik luzeenetan; eta neguko ekialdean, berritzera dijoan urte berriari, ongi etorria. Gertakizun hontatik du San Joan egunak bere iturria.

Suak garrantzi haundia zuen antzinako denboretan eta festa buru gehienetan erabili ohi zen. Grezia aldean su bizkor batekin ospatzen zen ardantzetako Bako-ren jaia. Lastargiekin ateratzen ziren erromatarrak uztako garien festan. Zeres, ama nahigabetatuaren oroigarritzat zeukaten, alaba Proserpinaren bilan erreak bai zituen harek bereak. Palas-en jaialditan hiru jauzi egin ohi zuten agotzarekin egindako suaren gainean. Servio Tulio, Erromako agintari nagusiak, Italiako hiritan ereintza aroan jai egun bat egitea agindua zuen, eta agotz metarekin sua egin behar zuten.

Ez dakigu San Joan sua noiztik datorkion Euskal Herriari. Oso zaharra izan liteke, eta berdin erromatarrek ekarria. Baina, gau erdiko suen ohitura bazen aspaldi gure artean. Estrabon eta beste historigile batzuk diotenez, ilargi egunetan inguratzen ziren gauaz dantzatzera. Udaberriko ilargi berrian izan zitekeen, berez; eta berdin ekaineko jai buruan.

Erromatarrek, gainera, sua elizan sartua zuten. Hiltzen utzi gabe iraunarazteko, Vesta-ren aldare aurrean esate baterako, zuriz jantzitako neskatxa gazteak baziren. Ohore haundikotzat zeukaten eginkizun han. Agintaritzaren iraupena adierazten zuen, Vesta-ren elizan beti pizturik zegoen garrak.

Gauzen iturrira joko bagenu, askoz zaharrago den beste ohitura baten ondorea baizik ez dela esan beharko genuke, erromatarrena. Herrialde askotako joera izan da, arbasoen oroigarri bezala, etxean beti argia pizturik eukitzea. Hildakoen argi, eta familia guziaren lokarri. Heriotzak ez zuen irensten arima. Gorputz hautsian ez zegokoena, sularda inguruan uste zuten. Etxea, bizitegi eta eliza izan ohi zen. Lanbideagatik, ala biziak eraginda etxetik alde egin behar izaten zuen gazteak, pizturik zeraman berekin sort-etxeko sua. Bere odoleko bizien eta hilen batasun

iraunkorrean sartua eta txertatua zegoelako agiria zen.

San Joan bezperako suari gorputzeko gaitzak sendatzeko indar berexia omen dario. Ezkabia, hatza eta larru azaleko gaitzak, sarna fuera esatean lekutuak dira.

Sua garbitzale da. Kabalak bordaz aldatu aurretik, pertz ala beste edozein untzitan sua hartuta, hutsik egon den barneari itzulia ematen saio. Berdin, gero, kanpoko paretei. Gaitz, mamutza eta sorginkeria guzietatik garbitzen omen du suak. Oilarrak ordua baino lehen jotzen badu, sorginak etxe inguruan dabil-tzelako omen da eta, hiru gatz bikor suari botatzera jeiki behar. Horrek hausten omen du sorginkeria. Sagu bat erori den bakoitzean suan pasatu ta jartzen da artea; bestela ez dira joaten saguak. Artaldetik otsoa lekutzeko sua bezalakorik ez dela diote artzainek; azkonarrak eta basurdeak kalterik ez egiteko ere sua piztu ohi dute arto alorretan nekazariek.

Belar gaizto ta ekaitz beltzak kentzeko ere balio du, nunbait suak. San Joan bezperako ilitiak sutan hartuta, lau bost aldetara botatzen zituzten baserritarrak ezagutu ditut; soro ala larre bakoitzari berea. Gauerdigaraian elkarrekin inguratuta, beste egitekorik gabe

Joaten ziren euren garitara emakumeak: *orai artean belar ta hemendik aurrera gari!* jakinarazten zioten burutzeko zegoen gari alorrari. San Joan gaueko miraria.

Su printzak hauts azpian gordetzen ditu amatxi zaharrak, ez dadin hil gauaz, eta ez heda. Bestela, nola erre bat-bateko sorginen gatz bikorrak! Etxearen arima sua omen da...

Suaren gauzetan beroturik zebilen nere burua, esneketariaren burrunba senditzean. Nun da otsoa, ta azkonarra? Nun, San Joan bezperako ezkilak? Zer egin da mutilen garra haundiko sua? Ohe gainean nago, estalki guziak lurrian. Haize hegoa dabil kanpoan. Ametsetan berritu dut, noizbait entzundako guzia. Goizeko seiak.

Nere haurtzaroan etxean ezagututakoak nituen bagien aurrean: beti pizturik egoten zen purgatorioko animen argia, erdiraino urez betetako edontzi kristalezkoan. Paperezko sugaia olioaren gainean, itsas untzi bat bezain gauza ikusgarria izaten zen neretzat. Neguan, batez ere, eulitxak erortzen ziren hegoak erreta. Ikutzen hasten nintzen orduko hila zen errekei-tua. Onaren aurpegiarekin amatxo, esaten nion, hila da Jesusitoren argia. Zure anaia txikiaren lana izango

da, esaten zidan berak. Gero, lan guziak utzi eta piztu egiten zuen berak. Amatxo hiltzean galdu zen gure etxean argia pizturik eukitzeko ohitura. Txiki denborako Jesusen Bihotzaren gela ikusten nuen gaur ametsetan. Errainuarekin dantzan zebiltzen mahai eta alki guzien egurrak; batzutan erdi hila, argi oriz betetzen zuen noiznahi barnea.

Leihora atera naiz eta animarik ez zen kanpoan. Esneketariarengana etorri direnen mintzoak ixilduak. «Txutxo» esne arrasto batzuk lurrean milikatzen. Auto hotsa irrutian. Egun berria.

Aspaldiko urtetan ez da maatz arbolarik ezartzen herrian. Gau bateko lana berekin zuen txara menditik lorrean ekartzeak. Idi pare hoberenak behar izaten ziren-eta, zortzi hamar txintxarriko larru uztaiak jazten zizkieten, lepoan. Bidean galtzen zueri azala eta legun leguna gelditzen zen egurra. Katagorria bezain biguina izan behar zuen goraino igo nahi zuena.

Garai bateko lizarrak ere galdu dira. Etxe inguru guziak betetzen ziren hostajez, eta irak botatzen lurrean. Urteko festarik alaiena bezala jotzen zuten San Joan eguna. Senargaien kontu zen maitearen etxe aurrea jaztea; eta neskatxa askoren loa, urteko arinena. Leiho zirritu gehienak begiz josiak izaten ziren goiz

aldera. Gero, egunaz, esames haundiak baztarretan, Maitale askoren lehenbiziko agerpena. Hori ere, abantxu galdua.

Elorri txuria ozpingarri ta oinaztura guzien babesgarri bezala ezartzen dute etxetan. Iruzkia atera aurretik bildu behar izaten da eta, goizean goiz, josi atal buruan. Egurrezko gurutze txikiak ere ikusten dira bordetan. Berdinn laurel-orri bedeinkatu eta iruzki belarrak.

Hobekienik gorde zaiguna, belar onen bedeinkazioa da. Elizkizunarengatik izan liteke. Gaitz askoren sendagarri, goiko ganbaran edo egatz azpian egoten dira urte guzian. Behien erro-sagar mina, nahiz txerrien gernu-oinazea dela, San Joan belarrak egosten dira. Eta besterik ez bada, bigarren urtean sua pizteko erabiltzen.

Urteko egunik luzeena dela-ta, hau esaten da gure herrian: etxe guzitan ahuntzak baziren garai batez. Ahuntzak gastu gutxi du eta laguntza ona. Gose asko arindu du ahuntzak munduan. Goizeko zazpitan eramaten zituen ahuntzainak basora eta ilun nabarrean ekarri.

San Joan eguna seinale, iturri ondoan inguratu omen ziren, oso goizik, emakume bi. Ari dira biak ges-

tora hizketan eta, halako batez: «Tuuu!!!», ahuntzainaren deia.

-Oi! Eta nik ahuntzak deizteko...

Ahal zuen bezala, tarrapatan, ahuntz hoiek prestatu ditu eta badaramazki lasterka herritik aurrera:

-Eee! Zuuu! Ahuntzaina! !, garrasika. Espeatzeko! Banihuala!

Azkenean entzun dio. Pixka bat egon eta hartu dizkio ahuntzak.

Berriz iturri ondoan, beste emakume batekin topo. Hasi dira, hasi, hizketan, eta gustora ari ere, ezin sinesturikako zorion goxoan.

Ordua joan eta ordua etorri, iruzkia gain behera eta, biak han goizean bezain fresko kalakan. Noizbait, konortatuz bezala:

-Neska! Ahuntzak heldu ditun! esaten dio batek besteari.

-Hago ixilik! Atsaldeko zazpiak ote ditun! Bai, eta... ahuntzak!

-Adizan: gaurkoa joan dun, baina eguna luzeren luzeena den garaian egin behar dinagu beste bat halakoa.

Udargi-n deiak euskeraz egiten ditu herriko-mutilak. Aspaldiko ohitura zaharra, hiru tutu aldirekin adierazten da agintarien oharra; arrain saltzale eta galdutako gauzen berri, birekin. Behin baino gehiagotan manetofioan hartzeko eskatua didate. Irrutian hirukoa entzun eta, Madrileko gizonaz oroitu naiz. Gure etxe ingurura etorri orduko prest-presta nuen nere erre-mendua. Geldi, astiro, ohean daudenei leihora ateratzeko denbora ematen duela, soinu-adarraren hiru deiak lehenik. Goizeko bederatziak:

Beko-basuen txerri gaitza dagola! Hogeita lau ordu baino lehen azienda guzia erretiratzeko eta txakurrei etxetik ateratzen ez uzteko. Agindu hau betetzen ez duenari gerta laikenaren kontu eskatuko zaiola!!!

Txerri hazitzeari eman dio, azken urte hauetan, jendeak. Beiak baino Jan gutxiago du eta irabazbide hobeak. Arriskua ere, ez hain haundia. Soldata batetik bizi denarentzat laguntza ona da txerriak dakarrena. Gaurko erabakiak itzal beltza sartuko du baztarretan.

Gehienek beren etxetan dauzkate txerritegiak eta bi ilabetetan saldu ohi dituzte. Hori da dirurik garbiena. Hortik aurrera gastu haundia dute egunen. Basora botatzen dituztenak hiru lau famili baizik ez dira; baina, denendako itxiko da orai plaza. Aztopo haundia.

Biramonean, jatzi txuriekin ikusi ditud gizonak. Auto itxi batekin joan etorrika dabiltz? Berrogei buru jo dute etxe batean, eta erre. Gehiago galdu duena ere izan behar du herrian. Urteko irabazia pikutan.

Ondoko egunetan ez da beste berri txarrik entzun. Goiz eguerdi guziz botikekin zurututako urez mainatzen dute hildako txerrien etxe ingurua. Ankatakotan zabaldu omen liteke izurra. Afrikako txerri gaitza esaten zaio; baina, aurte behintzat ez da Afrikatik etorri; gertuago dira gaitzaren iturriak. Denek badakite eta urtero berritzen da. Gauzak.

Gaitza nundik datorren jakinik, aurrez kentzea ez ote zen hobe? Saguak eta azeriak ere lotuko al dituzte? Eta euliak zer? «Txutxo-ren» bat edo beste bada, jaberik gabe, munduan; nun lotu eta nork erantzun egin dezaketen kalteaz?

Hain zuzen, bidez bide jeisten ikusi nuen askaturik zebilen txakur bakarra: «Txutxo» nere adiskidea. Ez

nekien, baso guzia beretako zuelako pozik zegoen, ala ez. Bere lagun guziak baino hobeki zegoela iduritzen zitzaidan, barne askotako txakur negarrak entzun eta. Legez kanpo bizitzeak ere, noizean behin, bere alderdi ona ba du, esan nuen nerkilako. Zuhaitz ondo, belar eta bideko auto guzien txirrikak usaituz zijoan. Harrituta bezala, ez zuen bururik itzultzen: zahar gazte guzien arraztina galdua. Txakurrik ez herrian.

Lurra gorriturik eta harria jana zen bideberri ondora ailegatu ta, burua sartzeko moduko zuloak ikus-tean, haruntz dijoa. Kamioien pozoin urak egina. Usaitu ta, urrats biek jautzia egin du atzeraka. Sudurrak minberatu dizkio. Ez da halako txakur usainik munduan; gizon zikinen gauzak, dio berak.

Bertantxe zegoen STOP baten burnizko tentekari, esaten ez den gauza bat eginik, asarre antzean sartu da bideberri baztarreko erreka zuloan. Delako usain txarra han ere. Zer debrukeria da! Nungo urde ustelak ote du hain gernu bizia? Ez nuke berarekin etzan nahi...

Bideberria pasatzea arrisku haundiko gauza da; atertu gabe datoz autoak. Bi edo hirutan abiatu ondorean, azkenean joan da. Ez du lehenbiziko aldia; kotxe txikiei bildur gehiago die kamioi haundiei baino, eta

hori biziak erakutsi dio. Nik uste hotsetik antza eman ten dion. Irrutixeago zetorren kamioiak nahiko denbora utziagatik burrunba itsusiko marruma atera du. «Txutxo» ikaratu egin da eta lasterrari eman. Gaizki aurreratu nahi zion norbaitendako zela uste dut.

Alde batetik lagunik ez, eta gibela murtxikatzen duen usain bizia aski ez dela, bideberria eta fabrikak. Ez da txerri gaitza ta lepoko soka beharrik lokarritan sartzeko bizia; nahiko sartua da.

Beheko basorra joaten hasi da. Txerri gaitza bade-la esango nion; tiroz botako dutela... Hala bizi baino hobe lukeela hilik, erantzungo zidan bildurrez, utzi egin diot joaten. Haritz azpi gehienak autoz eta, kolore guzitako oihal-txabolez beteak dira. Bidez bide jo du berak; bide baztarreko belar ertzetik. Bi neska mutil datozkio, aurrez aurre, gerritik harturik. Elkarri begiratuta, aingeru irriño batekin itxi ditu begiak neskak, maitasun hutsezko musuaren epela ezpainetan hartzen duela. Garai batez estali egiten ziren muxarrak bezala, pentsatu du txakurrak. Eta azkenean zer? Ez al da amodioa jainkoen janaria! Pixka bat geldirik egon ondorean, burua apaldu eta baztatu egin da txakurra. Ez du muga gabeko zero garbian itzala izan nahi. Gazteak ez dira konturatu ere.

Irak lerden datoz elorri txurien inguruan. Zoragarri da basoari kima guzitatik datorkion bizi berriaren aberastasun ugaria. Berde da pagadia eta, berde samin, behereko gaztain ta harizdia. Bere hezurren jabe ez dela dabilen txakurrak, halako itzal luze bat darama belar guzien gainean arrastaka; bakardadea. Zeruko ihintza dario, bere barnean, maitale bien irudi bake-tsuak. Usapalak datozkio gogora. Beretako ez bada ere, poztu egin da zorion izpiren bat bazela ikustean.

Artalde baten joale hotsak. Ez du iduri oso urruti dagoenik. Burua jaso eta adi-belarri gelditu da Txutxo. Ez du ezer ikusi, bainan sumatu bai zerbait. Txakur bat ikusi du gero, aspaldiko partez. Bere biziko poza hartu du.

Txutxok ez dakiena, zer lagun ospetsua duen hura! Artzain txakur txapelketan buru gelditua. «Txiki», anaia balu bezala maite du bere nagusi gazteak. Egunkariak asko goratu zuten txakurraren lana. Argazki ederrik ere eman zuten, ahoa zabalik, bere nagusiaren anketan jarririk.

Urrutira dute elkar ikusi. Begiratu bana bota eta gelditu dira. *Oraikoz ezin!*, iduri esan diola ardiekin dabilenak. Izan ere, lana badu orai: bidetik baztatu behar du artaldea. Gero, beharbada...

Udargin basoa saldua da eta egun hauetan ateratzen ari dira. Kamioi ori haundiak dabiltz egurketan. Bide ona dute ta ez dira beti geldi ibiltzen. 'Txiki' aha-legendu da bere lana ongi egiten; baztatu du bidetik artaldea eta, dudan gelditu da lagunarengana joan ala ez joan. Azkenean, erabaki du; bainan berandu. Abia-da bizian zetorren kamioiak lehertu du.

Buztanari eraginez deia egiten zion Txutxok eta ez zuen halakorik uste. Zapparretatik aurrera joan da negarrez. Lagunaren odolak hortzak erretzen dizkio dardara bizian. Zertako hotsegin ote dion, galdetzen dio bere buruari. Berriz ere bakarrik basoan.

Itsu mutura sartu da baso barnean eta, ia muturrez jo du haur txiki bati baztatu zaion pilota arina.

-Aita, aita! esan du haurrak. Txakurra!

Gurasoak ikaratu egin dira haren itxura txarra ikustean, eta ez joateko agindu diote. Itzuli egin da «Txutxo» baina, esan ezin duen zerbait ikusi du haur txikiaren begitan. Ez da ikaratu aita amak bezala eta begira-begira gelditu da. Pilota utzi eta joaten hasi ere bai.

-Atoz, atoz; ez joan! esan dio aitak. Gaiztoa da eta hozka egingo dizu.

Bihotz ondoko txarra sartu dio «Txutxori» aitaren esanak. Txikiari bildurra sartzeagatik esan duela badaki; eta halare ezin du irentsi. Berak ez dio inori kalterik egin. Bakarrik gelditu bada munduan, hortan ez du hobenik.

Haurtxoa pilota hartzera itzuli da lehenik, eta gero:

-Aitatxo; gosea daukalako egiten al du hozka?

-Goseak amurraturik dago.

-Jatera eman behar diot, orduan! erantzun dio txikiak.

-Ez da gurea; eman dezaiola nagusiak. Hortarako dauka.

-Neri nahigabe haundia ematen dit eta ogia eman behar diot.

-Entzuten duzu, lasone? Bihotz oneko seme bat...

-Arrazoi du mutikoak. Zortzi eguneko gosea gainean darama.

Txakurraren barnea kilika gorrian jarri da, ahoan ura egiten hasi zaio eta buztana ezin daukake geldirik. Aspaldiko partez zertxoren bat janen du... haurrari esker.

Txorizo azal, ahurraren bi zerrendaño ikutu gabe, ogi zuri gozoa eta bazkal aurreko beste hondarrak eman dizkiote paper puska batean inguratuta.

-Aita, begira zoin gustora jaten duen!

Hala, hondarrak garbitzen lan gutxiago...

Hezur asko eman diote gero. Gorkak ez du behar duenik jan; beti txakurrar begira egon da. Ixilean, ahora ereman beharrean. «Txutxo-rendako» zituen haragi puska hoberenak.

Haurra, esan dio amak; jan ala irentsi egin duzu okela? Bizkarrari eragin dio berak. Amak zer aurpegi jartzen zion ikusteko, burua jaso egin du txakurrak. Buztanari eragin, eta jaten jarraitu du. Bada jende onik munduan, pentsatu du gure «Txutxok».

Bazkal ondoan lo kuluxka egin du nagusiak. Ama ontziak gerbitzen ari zen bitartean txakurrarekin jostetan hasi da Gorka:

Nik pilota botako diat, esaten zion haurrak; eta hik gelditu, portero bahintz bezala.

Bi besoak batean jasota bultzatzen zuen «Txutxok» pilota. Irrutira eramaten zion eta berriz itzultzten.

-Hala ez! esaten Zion txikiak. Hi bakarrik jostatzen haiz eta ni batere ez! Biok ibili behar diagu...

Nekatu ta jarri egin da Gorka. Ora ez diat ibili nahi; jostatu hadi bakarrik... nahi balin baduk.

Pilota utzi eta mutikoarengana dator txakurra. Elkarren ondoan daude biak aspaldiko adiskide izan balira bezala. Ankatxoak milikatzen dizkio «Txutxok» eta, azkenean, jarri egin da haurrari begira.

-Aitak esan du gaiztoa zarela, dio begiekin Gorka txikiak; hozka egiten duzula eta ez kasorik egiteko.

-Zure aitak ez nau ezagutzen; nor naizen ere ez daki. Nola esan lezake hori?

-Hori bera esaten dut nik. Ez; zuk ez duzu hain gaiztoa iduri. Lagunak izan behar dugu biok.

Pozaren pozez, txakurrak zer egin ez daki. Luze luzea etzan eta burua mutikoaren ankatxotan bota du, atzaparrekin eskuak hartzen dizkiola. Haurrak bere eskutxoak luzatu ta bildu egiten dizkio, «ezetz harra-patu» esanez bezala.

-Haurra nun dugu? galdetu du aitak esnatu denean. Lagunarekin dagoela ez esateagatik.

-Atoz eta ikusi -erantzun dio emazteak-. ...eta zuk utzi!

-Beste horrenbeste poza eman dion jostailurik ez diogu, zuk eta nik, inoiz ekarri.

-Gaitzen bat harrapa lezake eta hil.

-Beste haur batzuk ere txakurrekin jostatzen dira eta, horrengatik behintzat ez dira hiltzen.

-Zertako dugu hori? Oraiko txakur eder hoietako bat izan balitz... Zoaz nungo artzain-txakurren kasta izango den!

-Aukera ezinik ibili bagina ere, hori esateko! Bera etorri da eta hor duzu haurrarekin lagun. Kentzekotan, zuk kendu...

-Edozein txaboletan biak artzain jarriko ditugu. Hoberena izango da.

-Artzain txakurren artean hazia naiz, eta inoiz zure atzetik ibili gabe, zinen zu gure atzetik abiatu. Gure mendietako txakurrez lotsatzekotan, orduan behar zinen lotsatu.

-Txakur zahar bat gora behera haserratu behar ote dugu.

-Txakurra esatean beste zerbaitetan ikutzen nauzu...

-Barkatu. Goazen uretara.

Igarika-lekua hesiz itxia da. Irrutitik ikusi ditu Txu-txok hiruak sartzen. Ijili-ajala dago jendea barnean. Mutil batzuk pilotari ostikoka; neska gehienak etzanik, gerria ageri dutela iruzkitan. Oso gutxi da orai emaku-

meak lotsaz inori estaltzen diona. Baina, hor bakoitzaren gauza da. Denbora berrien aurpegi laztana.

«Txutxo» ez da lehengoa. Maitasun izpi baten ikutua darama bihotzean. Semeak -zorioneko haurren garbitasuna-, hozkaren bildurrik gabe eman dio jatera. Amak ez du gaizki ikusi haurtxoarekin jostatzen; asko da etxe batean amaren babesia. Aita ez da gure mendi zabaletako iruzki lorea. Dirua badu; baina, bere langileen hurrekin ez kutsatzeko, lagunik gabe uzten du bere seme bakarra. Asperturik bizi da, dagoneko, bere urrezko kaiolan. Mendira joan eta, inoren lokarri gabeko artzain txakurrez gustatu da. Zergaitik den ez daki, txikia da ta; gustatu dela, bakarrik.

Hesiari itzulia ematen hasi da txakurra, muturra nun sarturik ba ote zuen ikusteko; eta nahi ez zuena ikusi du. Baso barnean. Ioli eta Iurgi. Neska behintzat, ama onaren alaba.

Auto gorri eder baten atzetik joan da, gero, «Txutxo» gizajoa. Gizonaren anakak gogor zapaltzen zuen, barre antzean, indar guzien eztena, eta oso atzean gelditu da txakurra. Txerri gaitza dela bide, etxean loturik egon dira jai atsaldean bere lagunak. Herriko mutilak nahi duena esango du; baina, Beheko-basoa polita data, askatasuna hobea.

UDAZKENA

Udazkena berez ederra da; neguaren bildurra du txarrena. Santakurutz eta Andra Mari urrikoa dira herritako jaialdi hondarrak. Ehiztari guzien uzta, usopasakoa. Gero, lertxunak eta elurra.

Udargi inguruan badira feri egunak. Denbora txarra ekartzen omen dute. Eskaletatik ezagutzen ditut nik feriak. Argitu orduko -orai berandu argitzen du-, bazen zaldabai eta kriskitin hotsa kaletan. Batek jo ta biak dantza, sasoi oneko neskak anka aztalerainoko gonetan. Leiho asko ireki da, han hemenka; zirritutik begiratu ta berriz bultza. Jituak.

Urteroko kanta. Egaztiak bezala, hauek ere badute beren pasa. Zoaz nundik nora joaten diren; baina, ferietarako plazan. Hemezortzi bat urte izango du dantzariak. Motots beltza ta begi zorrotzak, ilundura pixka baten ikatz sua darioten begiak. Txakurrik ere ez zaie atera aurten bidera; atari zulotatik egiten diete zaunka. Belarritako zintzirrin haundiak, ilargiak musuka beltzatutako larru gainean. Herriari itzulia eman da, egin dute berena; atzetik etorriko dira, haurrak galtzarpean dituztela, ama haundiak.

Eta aitaren bat edo beste ere bai. Apaizarengana izana da bezperatik denen aitona. Ilobatxoa bataiatu

nahi luke herrian. Apaizak badaki elizkizun hoiien berri eta aurrerabide haundirik eman gabe eutsi nahi dio.

-Nungoa zara?

-Hungaroa.

-Nun jaio da haurra?

-Santander aldean.

-Zenbat denbora du?

-Ilabetetxo bat...

-Eta ez al duzue bide guzian beste elizarik topatu?

-Herriz-herri gabiltz, badakizu! Beheretik gatoz eta aitatxi amatxiak ipar-aldetik etortzekoak ziren; hain zuzen, hementxe dugu barda elkar ikusi. Egun haundia da guretzat.

Itxura gaiztoko sonbela darama buruan. Iruzki askoren garrak jana dio, oihal ala larru zer den ere, berria zeneko antza ta kolore guzia. Koipe legunaren argia badu, zartain barneak bezala. Bataio aurretik ikastorua egin behar izaten dela, adierazi dio apezak; eta gero, jai egun ala festa bururen bateko mezan bataiatu. Beraz, denbora behar.

-Gaur hemen eta bihar ez jakin nun, hala da gure bizia. Nola egon hainbeste denboran! Lehen-bait-lehen nahi genuke; bihar baino ere gaur hobe...

Alferrik zela ikusirik, diosola egin eta barnera sartu da apaiza. Bai gizona ere atzetik. Lan-gelako ataria ireki orduko nun ikutzen dion besagaina:

-Barkatu! Barne hortan nahi nuke zurekin mintzatu...

Hau dena, atzoko gertakizuna. Gaur jende txikien aldi da. Lau bost izanak dira atari joka. Zerbait hartu orduko beren amengana joaten dira lasterka: lursagar, tipula eta tomete gorriren bat edo beste da haien esku saretan ikusten den guzia. Garai batean ogia ematen zieten etxetan, baina orai ez dute hain gogotik hartzen. Katilu bat esne nahiago dute.

Apaizari bere gelan sartu zitzaion gizonak duro ziderrak baino aurpegi gehiago zuen. Zazpi urteko mutiko begi urdin bat zekarren berekin. Txakur txikia bezala zetorkion ixilik. Baimena eskatzeko lanik gabe sartu ta eseri egin zen nere mahai aurrean. Lau hortz ihaundi, ori bezain makalak, erakusten zituen hitz egitean. Haurra zuti gelditu zen, eta apaiza aurrez aurre mahairen beste aldean.

-Zer duzu besterik, orai? galdetu dio eliz-gizonak.

-Ez; besterik ezer. Bataioa...

-Ezin dut; entzun duzu.

-Ezin? Nahi ez duzulako. Ur xorta baten joan etorrria ez da hainbesteko lana... (begi keinu eta imintzio gordinarekin esan ditu azken hitzak).

-Ez noski; lana bezala, bataiatzea ez da lan handia. Hori besterik ez balitz?

-Aizu! Fededuna naiz; horregatik nator zuregana (larruzkoa izan nahi zuen diru zorro batetik zerbait atera eta luzatu dio, eliz-baimen guzien giltzarria izan balu bezain jabe. Paulo seigarren Aita Santua eta Ate-nagoras besarkatu zireneko irudia zen).

-Eta horrekin zer esan nahi didazu?

-Sinestea badudala.

-Ez dizut nik ukatzen. Beharbada nik baino gehiago, Jainkoaren aurrean. Eta zer gehiago?

Apaizaren erantzunak itxaropen berria eman dio; harek baino fede gehiago izan lezakeela jakitea ez zaio gaizki iduritu. Hauxe da bere katexima guzien kontu emateko garaia:

-Goizetan Adan ta Eba-ri beti egiten diot otoitz.

-Adan ta Ebari esan duzu?

-Bai, bai; jainko maiteari...

Berek herriz herri daramaten jostagarria datorkit gogora. Hartzak hil dira, ximinorik ez dute; ahuntza baizik ez zaie gelditzen, eta hura zahartua; eskilera

labur batzuk igotzen besterik es daki gaixoak. Baina, komediantak dira. Jostagarrian baino komedia gehiago badute beren bizian. Ez die apaizak Adan ta Ebaz ezer esan.

-Hain kristau jatorra zerenez Jainkozaletasuna erakutsiko diezu seme alabei?

-Bai noski!!

-Kristau ikasgaien berri badakien galdetu dio mutikoari.

-Ez! Ez dakit zer den... erantzun du haurrak aitari begiratu sakon bat egin ondorean.

-Oso txikia da! esan du aitak. Bestea izan balitz! Zaharrenak dena badaki.

-Otoitzean jakinen duzu! Ia «Gure Aita» badakizun?

-Ez; ez dut ikasi.

Nunbaiteko hizkuntza arrotzean zerbait esan dio aitak. Ez dakit haurrak ulertu ote dion; ez zuen iduri. Gero apaizari:

-Geure hizkuntzan badaki.

-Adan ta Ebarena?

-Hori bera!!

Mihiaz bezala jakintzaz jantzia balitz! Zinezko komediantea.

Seme txikiarekin ez zaizkio gauzak berak nahi bezala atera, eta ongi gelditzeko gogoia erakusten du.

Seme zaharrenarekin ditu orai kontuak:

-Nahiago nuen hemen egon balitz! Apaiz ikasten egona da...

Apaizgai zure semea?

-Bai. Eta lanbide hortan oso aurreraturik zegoen. Jainko gaietan trebea da.

-Nun eskolatu zen?

-Mutriku-n. Badakizu nun dagon? Apaiz sail bat bada han eta nere semea beti haiekin zebilen. Dene-tarik egiten zien, eta ongi! Ez geuria delako baina, asko balio du.

-Meza ematen zuen?

-Ia, ia, bai.

-Eta hitzaldirik?

-Haiek lagunduz.

-Idazten ere badaki?

-Nik uste baietz.

-Zenbat urte ditu?

-Hamazazpi. Ahaleginak egin zizkioten han geldia-razten.

-Eta ez zen gelditu?

-Nola! Guk ere jan behar, badakizu? Bera. da gure tropan soinuaria, eta hori gabe ezin...

-Eta seme apaiza zeurekin izanez neragana zatoz haurra bataiatzera? Ez behintzat inori esan.

-Apaiza, apaiza... -erantzun dio orduan, zer esan ez dakienaren irri maltzurrarekin-; baina, helduko zen jarraitu balu.

Urarekin ez du ezer atera, apaizari ordu bat osoa galarazi ondorean. Lehenbiziko aldiz lotsaren antzeko zerbait senditzen hasia da eta ez daki harira nola joan. Azkenean biderik motzena hartu du:

-Laguntzaren bat emango bazenit! Gaurkoarekin zortzigarren eguna bada, inola gure teatro txikia egiteko biderik izan ez duguna.

-Hemen bezain gaizki eginez ez zaizu katurik ere joango.

Gaurkorik ez zaio eliz-artzainari inoiz gertatu. Berez husturik bezala egon da gizon arrotzari entzuten. Hain gauza harrigarriak ateratzen zizkion! Bi aldiz eraman ditu eskuak burura, bakarrik gelditu delarik. «Ez da gauazko ametsa izan -zion bere baitan-, esnatu- turik nago; eta neke saparen erredura izateko ere, goiza da.» Danbolin, zaldabai eta kriskitin guziak ixil-

duak dira karrikan. Bezperako gizona bakarrik du gogoan.

Barregura ematen dio, alde batetik; baino, irri egiteko kemenik gabe gelditu da. Hautsia. Jarralkia ta bera lurrarekin dardaratu, eta, leze baten aho zuloan sostengurik gabe bezala, bere jakintza guzien orma zabalak batbatean lurrera etorri dira. Hutsaren labe mutua ikusi du gizonaren barnean.

Entzundakoak erreberituaz, nolabeiteko jainkozaletasuna aitortzen zuen bere hortz makalak erakutsita: goizeko otoitza, Paulo seigarrenaren argazkia, ilobaren bataioa. Ogibide bezala?

Hori bai; gauza jakingarria agertu dio apaizari ahuntz zaharraren nagusi beltzak: Adan ta Ebaren sinesmena. Hitz hutsak, beharbada, haren ahoan; baina, komediaz betetako gizon baten egia. Bere bizi-urak, harri ta malkor guzien kontra jotariko gizasemea, lehenbiziko Adan zenaren mailan gelditu da baztartua. Bigarren Adan eta gizon berriaren argirik ez du bihotzean. Gaua da, ilargiz asetako gizonaren ariman.

Urria errosarioaren ilabetea izaten zen orai arte. Goizetan argiekin ibiltzen ziren haurrak elizako deia egiten. Ezkila txikia eskuan, kalez kale hau errepikatzen zuten:

Ohatzea utzi ta
goazen elizara
errosarioa goiz
errezatutzero.

Errosarioa da
erregu onena
errezatu dezagun
al-dan ondoena.

Aita gurea da
Jesusen esana,
Ave Maria dugu
aingeruarena.

Arrosen ederra
baita lirioa,
baino ederragoa

errosarioa.

Gero, elizan, Domingo santuaren bertsoak erderatik hartuta:

Bizi dedila

Errosarioa

Ama txit maitearen
orazioa.

Errosarioa danok
esan dezagun
gure fedea bizi
izan dezagun.

Nekazariak badu
nahi frutu hartu
errosarioa beza
ondo errezatu.

Hamarrekoak dira
harrizko mailak
zerura igotzeko
kristau apalak.

Agur Maria bada
aingeru hitza
errosarioa da
zeruko giltza.

Beste gauza askoren antzera, errosarioa ere galdu da. Aspergarri omen da hainbeste aldiz gauza bera errepikatzen ibiltzea. Gutxiagorekin entzungo lukeela, belarri onak balitu, Jainkoak. Gazte jendeak hitz ausartak ditu gaur ahoan. Udargi-n lastaila esaten diote urriari; beren urria aurreko ilabetea zen.

Aspaldi mendira igo nahiak ginen eta, beti joatekotan, udazkena etorri zaigu. Hamabi-hamairu urteko neska mutil koskorrak ditut lagun. Oso goizik ateratzeko gogoa zuten bezperan. Goiztegi hotzak izaten direla sasoin hontan, adierazi diet nik; ez dela udan bezala. Bedratzitarako geldituak ginen, azkenean; baina, ordu hortan mugimendu gutxi zen herrian. Haurren kontuak.

Goian hegoa. Beherean lanbro zirtzil eta hotza. Mutiko gehienak inguratu dira eta uste dute denbora txarra izan behar dugula. Nesketatik lau baizik ez dira etorri; hitza emana zutenen erdiak baino gutxiago.

Bakoitzak bere jatekoa zorroan darana. Eskutan erabiltzeko puska gehiegi dela-ta, baten edo biren gain utzi dute dena. Aldizkatuko omen dira bidean. Bi neska motzek ez dute berena eskutik utzi nahi izan, gaseosa botilla hautsiko dieten bildurrez.

Haste hastetik aurea hartu digute mutilak. Irruti batean entzuten genituen, gero, haien irrintzi ta arramarrak. Zamaduna, berriz, atzetik izerditan. Noizbait oroitu dira lagunak eta kendu diote bizkar gainetik astazama.

Hamarrak eta laurdenetan gosetuak ziren gehienak. Jarrita arrapatu ditugu lehenbizikoak. Portu gainean gosalduko genuela esan diet eta jarraitu dugu. Iruzki zoragarria zegoen azkeneko gerban. Lainoska arro batek estaltzen zigun beherean herria. Pozik zeuden gure mendigoizaleak. Iturri goxoa bada portuko buruan eta haren inguruan jarrita traskatu du bakoitzak bere jakia. Eguna luzea ez bada ere, geroko zerbait gordetzeko esan zaie. Zorroak eskutan hartu ta zernahi badutelakoan erakusten dizkidate. Hobe.

Hasieran, gosearekin ixil zeuden. Gero, hizketari.

-Nik badakit *Gurutzetako harria* nun dagoen, esan du artzain baten semeak.

-Eta hori zer da? galdetu du neska txikienak.

-Toki baten izena, zer izan behar din! erantzun dio anaiak.

-Goazen ta ikusi?

Lasterka joan dira denak. Oso bide gutxira zegoen. Haitzaren bizkar leguna eta odoldio puskek, besterik ez. Burnizko gurutzeren bat egongo zela uste zuten haurrak.

-Oooh!! Eta gurutzea nun dago, bada!?

-Gurutzea urteoro uzten zen hemen, esan diet nik. Bada denbora ohitura galdu zela. Luzetxo da esateko.

-Jarri egingo gara eta zuk kontatu.

-Eseri, orduan.

Uda minean ere ez du halako egun ederrik egin. Ez da zero sapaian laino printza bat ikusten. Haize gutxi eta hotzik batere. Gustora daude haurrak.

Gurutze sanduak egun bi ditu urtean: udazkenean eta maiatzean. Udazkenekoa izan berri da: ahuntzarekin komediak izan ziren egunean.

-Ah bai! Txarrago! Eskilera hautsi ta lurrera ahuntza!

-Ta maki joan zen, gero...

-Zer barregura! Adarrekin gizona jo ta odola atera zion.

-Borrokan ibili al ziren biak? -esan diet nik.

-Eeez! Lurrera botatzean heldu egin nahi zion ta...
adarrarekin jo. Aitak esan zuen txarki egiten zutela.

Maiatzaren hiruan da -esan dut nik-, udaberriko Gurutze eguna. Egun hortan denok joaten ginen elizara; argitu baino lehenago izaten zen meza. Elizbira (prozesioa) ere egiten zen. Herriko lurralde guzia bedeinkatzen zuen apaizak, lau aldetara begira otoitz eginez. Asto txiki baten gainean bazkaria hartu eta mendira etortzen ziren, gero, agintariak: apaiza, sakristaua, aiundamenduko bi gizon eta herriko mutila. Bezperatik, hortarako, egurrezko lau bost gurutze txiki egiten zituen sakristauak.

-Eta zer egiten zuten mendian?

-Mugak ikusi eta gurutzeak sartu. Gu gauden leku hau bera Udargi-ko mendien muga da. Hortik aurrera Urbasa mendia, eta ardi haiek dauden lekua beste herri batena.

-Lapurrengatik egiten zuten hori? galdetu du neska txikiak.

-Tonta edo zer haiz hi? erantzun dio, berriz, anaiak. Nola ostuko dinete mendia? Bueno... ardiak ere hor ditun, bai -esan du, gero, berak.

-Ez; ez zen lapurrengatik egiten. Badina lapurrak baino kalte gehiago ekartzen dutenak. Edozeinek

ikusten du gauza txarrak eta onak badirela munduan: axuriak eta esnea onak dira. Gaitzak eta otsoa, txar-
rrak. Lana egin eta dena ongi ateratzen zaigu batzu-
tan; beste batzutan, berriz, gaizki. Hori ez dago gure
baitan.

Gure aurrekoan eritzian, on guziak Jainkoarengan-
dik datoz; eta txarren aita deabrua da. Harri eraun-
tsiak eta laino beltzak etsaiaren zaldia ekartzen
zituzten. Elizak bazuen deabruen kontra indar berezia;
horregatik egiten zituen eskabideak eta letaniak. Eta
horrexegatik maiatzeko Gurutzetik udazkenekora,
ezkilak joaz, otoitza egiten zuen egunero eliza atarian.

-Ah bai! Konjuroa! -erantzun du mutiko batek-.
Meza laguntzen ibiltzen nintzenean jotzen nituen nik
ere ezkilak: bi ta bat, bi ta bat... besoak nekatu arte.

-Horixe! Ez du denbora asko horrek galdurik. Eta
jostaiak bastean ez duzue etxetan erramu bedeinka-
tua erretzen ikusi? Beste batzuk Kandelerako argia
piztutzen dute. Dena da Jainkoaren indarra deabrua-
ren kontra ekartzea.

-Gure amandreak esaten du ozpingarriaren erre-
medioa Jainkoaren harria dela. Ez digu uzten leihotik
kentzen. Zerengatik esaten zaio Jainkoaren harria?

-Gizonaren eskuz egina ez delako. Badakizue zein diren? Arrain, sube eta bihotza bezalako harrizkoak. Zer kontxa ta petral politak ikusten diren! Lehenago-ko gizonak mendi hauek itsaso izanak zirenik ez zekiten; zerutik jetxitako harri santuak zirela uste zuten. Oinazturak etxean ez sartzeko ezartzen ziren leihoan.

-Gure sukaldekoan bost segurik badaude. Amak ez daki zertako diren; Jainkoaren harriak direla, baka-
rrik.

Gurutzea mendian zergatik jartzen zuten, ez diet esana. Etxea ozpingarri eta txarkeria guzietatik gorde nahi zuten bezala, herriko soro eta izerdi guzien saria ere, etsaietatik zaindu nahi zutela adierazi beharko nieke.

-Gurutzea da kristauen agiri ta seinale nagusia; Gurutzearen izenean izan dira etsai guziak menderatuak. Berek buruan sartua zuten eran, harri erauntsi, ostots eta beste bildurgarri guziak uxatzeko.ezartzen zuten gurutzea hegoaldeko mugan. Elizako paretan ere hor egoten zen, ilabete hoietan, beste gurutze haundi bat.

Luzexko izan da gaurko ikasgaia. Zerbait gehiago galdetzeko gogoaz bazuten; baina, bidean erantzungo diedala esanik, mugitu gara. Artzaien txabolara joate-

koak ginen, eta berandu egiten ari zaigu. Bi gauza genituen han ikusi nahi: antzinako gizonen hilobia izandako barri pila bat; eta udan zine egiten ibili ziren lekua.

Hamabiak aldera heldu gara. Gizona bazijoan etxera. Garai hontan ez da esnerik, ez gazta egin beharrik. Artzainaren lana laster bukatzen da. Egun erdia galduarazi diogu, etxeko lanetan sartu zezakeena. Barkazio eskatu ta harri pila aldera goaz.

-Nun egon zarete? galdetu du berak.

-Gurutzetako harrian. Izen horrek zer adierazi nahi duen jakin behar, gizona! erantzun diot.

-Eta Luziferrena esan diezu?

-Luziferrena? itsasi zaizkio haurrak. Hori ez digu esan.

Nik ere ez nekien. Hala adierazi diot berari. Gelditu da, makila aurrean zuti jarri, eta hasi zaigu kondatzen:

-Inguru hortan ba omen da leze bat Luzifer egoten zena. Gauaz ibiltzen omen zen mendi batetik bestera, sua dariola. Nik ez dut sekula ikusi. Berak ekartzen zituen, nunbait, haize gaizto eta zikinkeria guziak. Bildur haundia zioten nekazariek.

Apaiza ta bere lagunak gurutzea sartzera etortzen ziren garaian, barnean zegoen ala ez jakin behar zen lehenik. Bere bonete edo beste edozein gauza botatzen omen zion zulora. Hura gora itzultzen balin bazen, Luzifer lezean zegoelako marka. Eliz otoitzak egin, gurutzetxea leze ertzean sartu ta hara Luzifer urte baterako lotua. Ezin zen handik atera. Apaizaren boneta barnera erortzen bazen, lezea hutsik eta Luzifer Aralarra joana zelako seinale. Eta zuk ez zenekien hori?

-Ez, ez, erantzun diot; estreineko aldia entzuten dudana.

-Asko jakinen duzu, baina beti gauza berriak ikasten...

Lezea nun dagoen ez diot galdetu nahi izan; lana galerazten gabiltz. Gehiegi egin du gizajoak gure zai egoten. Nik egingo ez nuena, haurrak lehertu dute:

-Koba hori nun dagoen badakizu?

-Ez. Askotan ibili naiz bilan eta ez dut arkitu. Ni baino zaharragoei ere galdetu izan diet eta inguru hartan ez da koba ta leze zulorik. Beste nunbait ez bazen...

Harri pilan utzi gaitu artzainak. Ihuntzia bezala banatuak dira harriak. Ez da hura hurrekin ezertan

hasteko lana. Eta nork esan ez dela ikutu behar!
Eguerdi.

Zer izan litekeen adierazi ondorean harri mugitzen jarri ditut denak. Itxuraz, hilobia erdian egongo zen, eta beste barne bat izango zuen, inguru osoan. Gorputz erdia sartzeko zirritua agertu da gero; bai sartu ere. Abere hezurak zeuden barruan. Erdiko hilobi lekua lurrez betea eta nahasirik ikusten da. Gu baino lehen ibiliak dira. Hortz haundi bat agertu da; jende hortza.

Bazkal aurrean eskuak garbitzeko gaizki ibili gara. Lohi gaintetik zijoan ur zirrista batean sartu dituzte batzuk eskuak. Hautsa kentzeagatik lohia atera dute. Larratzean belarra bazen eta han igurtzi ditugu geuriak. Bero. Itzalean jarri gara. Nekatuak ginen.

Konjuro ta beste ohiturak nola galdu ditugun jakin nahi zuten hurrek. Hain polita da Luziferren ipuina! Kristau denbora aurreko iturritatik datozela esan diet.

-Eta nola gorde zaizkigu orai arte?

-Kristautasunak ez zuen gizonaren bizibiderik aldatu munduan. Ordu arte nekazari eta artzain zenak, bere aitzur eta artzain makilari itsasirik jarraitu zuen, gero ere. Lanbide berria ez baino, lanaren argidura berria ekartzera etorri zen Jauna mundura. Kris-

tauen artean, aurreko denboretan bezala, euri onen eta iruzki gozoaren baitan zegoen soroko neke larri guziena saria. Elizak egin zuena, Jainko bakarraren ize-nean ezarri, aurreko festa zaharrak. San Markosetako letaniak esate baterako, garai hartan Erromako Milbio ibaiaren inguruan egiten ziren festen orde ezarriak ziren. Robigo zen haien jainko bat, eta garien erdoia eta ainoa kentzeko otoitzak egiten zizkioten.

-Eta orai zer? Ez gauza bat eta ez beste. (Zorroztzak dira ihizi hauen begi txikiak. Heuren gurasoek ere nekez egingo lituzketen galde moduak egiten dizkidan te.

-Oraikoa beste gauza bat da. Lurrarekin borrokan bizitu den gizonak aitzurra bota eta beste lanbide bati eman dio. Zortzi ordu eta berdin hamar aterpean sartzan du. Oilategi antzeko etxe mordo haunditan du bere bizitegi txikia. Zer axola dio hari garien ainoak eta ardien bazkak? Euriari aurpegi txarra jartzen dio, bustitzen duelako; eta idorte garaian bizkarrari eragin eta kito. Lan ordu astunak eta nagusiaren kopeta beltzak erretzen du bere on guzia. Eta bera baino hobeki bizi direnen mailara ezin helduak...

-Gure denborak, beraz, ez dira haiek baino politagoak?

-Ez nuke nik hori esango. Denbora ta bakoitzaren bizia, magnetofoi honen haria bezala da: gauza onak hartu lezazke eta, berdi txarrak. Zer ematen zaion, hura. Diferentzia batekin; lehen ez zen magnetofoirik eta orai bai. Aurreramenduak. Zoritxarrez, gure jakintza, askotan txarkeriarako baliatzen dugu. Geure hutsa.

Gure filosofia guzien artetik, barri pila ikustera joan zaizkigu batzuk. Lasai geunden, halako hots tarrapatako bat entzutean. Makurrena etorri zait burura. Mila bat kilotik gora zen harria lerratu zaie, azpijanean egina zuten zultura. Hitzik gabe harrapatu ditut mutikoak. Hiru ziren han zeudenak, izu bezain zuri.

-Bazen norbait barrenean? galdegin diet.

-Ez, erantzun didate. Hau zebilen ta ateratzeko denbora eman dio.

-Gaur jaio zerala esan dezakezu zure etxean. Hobe izango da, bestela, ezer ez esatea.

Udan zine egiten ibili zireneko lekua ere ikusi dugu. Erremendu zaharrez ereinik dago. Lastoz betetako zaku haundiak; mandotzat sartzen zituzten. Zaldi-gurdi zaharrak, kañoi antzeko tresna elbarriak eta Coca-Cola botilla hutsak. Ez dute behintzat oso garbi utzi mendia. Zer ikusi gutxi dago.

Etixerakoan bidea galdu eta aurreregi joan gara. Beste herri bateko argiak ikusi ditugu irrutian. Ilunabarra. Lasterka abiatzeko, neskak ez dute jarraitzen; eta geldi ibiltzeko, gaua gainean. Egun betea izan da, gaurkoa; gehixegi, beharbada. Errosario deia ixildua, Gurutzetako harria hutsa, gauazko Luziferren sua itzalia. Lehengo denborak joanak. Bai, bai; duela mila urte asko ezarritako harriak lehertu ez gaituenean!

Ilunpeko indarren mendean zapaldurik bizitzetik, munduko hariak bere eskuz eragitera jo du gizonak. Hartzale hutsa izatetik, emaile aberatsa gerta liteke, gaurko giro berrian. Baina, bidea galtzeko arriskua bada: bide baztarrean lo egonez, hala saetsetik aurreregi joanez letorkiguke gaua.

Kristau majia pixkaren bat gora behera, jainkozale zen gure nekazari eta artzain aroko herria. Jakinen du ilargira joan den gizonak Jainko bidea bilatzen?

Azaroak lertxunak eta elurra berekin ditu. Duela zortzi egun ikusia dugu lehenibiziko elurra Euskal Herriko mendietan. *Ez da berandu*, zioen artzainak; baina eskubidea badu. Ongi izatekotan, hiru aldiz ikusi behar omen da elurra Santu-guzien egunerako; bestela negu txarra. Aspaldi hontan inork ez daki zer den hoberena, negu ona hala gogorra. Garai bateko elurteak eta izotzak Joan dira, baina San Pedroak arte ez du jasotzen denbora. Eta gero ere, bero gutxi.

Aurtengo urtea aurrera dioa eta hiriko gizonaren manetofoi haria ez dut betea. Gauza horren kezka badut. Baina, zergatik kezkatu? Nik bilatu gabe sartu zidan lanbidearekin zer ikusi haundirik bai al dut? Ez ta bai. Hartu nion eta nolabait beteko dut.

Domisantu eguna ez da lehengoa. Bezperatik prestatzen ziren Udargi-n elizako saskitxoak. Zumezkoak ziren eta beren neurriko ohol batekin berdindurik ezartzen zituzten argiak. Batzuetan bi saskitxo eramaten zituzten: gizonaren aldeko hilendako bat, eta andrearen alderdikoentzat bestea. Meza nagusira etxe guziak ogia ala opila eramaten zuten eta meza onderean hurrei banatzen zieten. Denek opila nahi.

Bi bezpera aldia egiten zen atsaldean: Domisantuena lehenik eta Animen eguneko gero. Lau ezkielkin jotzen zen, banan banaka, hilen deia. Argi piztuekin egoten ziren meza laguntzaileak koruko atari aurrean. Azkenean sekulako erresponso aldia.

Sukaldean egoten zen gau hartan saskitxo eta ilun ezkiela jotzean piztuta egiten zen otoitza. Aita-amak bizi baziren, hauen gurasoen argiak piztutzen zituzten. Gero, haiek utzi ta aita-amen alde. Senideek eta beste etxekoek ere bazuten argia.

-Zer da zuretzat argia? galdetu diot adina haundiko emakume bail

-Fedea, erantzun dit. Argia elizara eramatea fedea zen.

Elizak bere elizkizunetan eman dion kristau erantzun jatorra. Gizonaren kezka eta nahigabe guziak argitzen dituen kriseilua bezala eman ohi da sinestea. Kristo da mundura datorren gizonaren argia (Jn. 1, 9). Argi piztuaren bidez adierazten du elizak bataioko bizi berria; eta larunbat Sanduko elizkizunetan argia da oinarri. Hori ote da bakarrik? Sakristau zaharraren alaba da bera.

-Aldameneko Mari gaxo dago eta ikustera joan natzaio. Sandu guzien eguna du gogoan:

-Garai bateko argi-punta ta elizkizunak! esan du. Etxeko hil guzien argia eta bat gehiago pizten nuen nik beti: bizkorrenarendako izaten zen.

-Eta nor zen bizkorren hori? galdetu diot.

-Laguntzailerik ez dutenetan lehenbiziko baliatzen zena.

-Eta zertarako du animak argia?

-Biderako. Hemen bezala bere bidea egiten omen dute hildakoak eta beltza izango da argi gabekoen ibilera... Domisantu egunean purgatorioko anima guziak kanpoan ibiltzen zirela esaten ziguten aurrekoek. Iluntzean beren argi ederrekin joaten zirela. Gau batez, norbait bidez heldu ta argidunak erretiratzen ikusi. Denen atzetik, ez argi ta ez mundu, omen zetorren haietako bat.

-Argirik gabe nola habil hi? galdetu zion.

-Hik eman bahu argiarekin joango ninduan, erantzun omen zion. Bere emaztea zen bidera atera zitzaiona. Senarra hil izan balitz lehenik, ez zitzaion argirik faltatuko. Hortarako emakumea.

Beste munduan behar izaten den argia oso sartua dute zaharrek. Ilunbetari bildurra diote. Kriseilua itzaltzean otoitz antzeko zerbait esaten zuten: *Emaiguzu, Juana, bizien eta hilen argia*. Nagusia hil bezain laster

erlategira joaten ziren berria ematen. Urte hartan argizari gehiago egingo zuten erleek; eta berria eman ez baliete hil egingo ziren.

Atsaldeko elizkizun luze haietan erdi lo-eta, berdin lo zurrungan, ikusten zen jendea. Gona estamainazko ilunak eramaten zituzten burutik emakumeak. Ezin zen aurpegia ikusi. jantzi hori galdu da; gazteek ez dute halakorik nahi:

-Tristura ta nahigabe beltza sartzen zidan animen egunak, aitortu zidan emakume ezkondu berri batek. Alde batetik hil-ezkilak dinbi, danba; eta bestetik andreak negarrez. Ni behintzat egun hori etortzeko bildurrak egoten nintzen; zama haundi bat bezala zen neretzat...

Errespontso luze haietan joaten zitzaien Domisan-tuko atsaldea. Eliz estola ematen zien ezpainetara apaizak eta aldi bakoitzeko laukoa botatzen zioten sonbelan. Errekordia (*Ne recorderis*) sueldoa izaten zen, eta bakoitzak eskatu behar zuen. Etxe bakoitzak bere hilobia badu elizan eta haren gainean egin ohi zer otoitza.

Ilun nabarrean ezkila jotzean etxeakoandre bakoitzak bere argiak piztutzen zituen. Etxetik kanpo gerta-

tzen zen emakumeak laster aldi bat egin behar izaten zuen. Sukaldean egoten zen saskitxo.

Animen egunean goizik hasten ziren elizkizunak. Seietan jotzen zen meza eta ordurako han zeuden, eliz-atarian, emakumeak. Lehenbiziko argia piztutzen zuenak purgatoriotik anima bat ateratzen zuela uste zuten. Egia ta fedea zen hori haientzat.

Askitxo gauza bildu dut atsalde hontan; baina, demontrearen hari hau luzea da. Herburu aldera jo dut eta, hantxe, azkeneko etxean emakume adinekoa atera zait.

-Zer! Hemengo aldi?

-Hala! esan diot. Hitz aspertu baten ondorean harira eraman dut solasa:

-Beteko ez den eskaintzarik ez omen da egin behar; hala erakutsi zidaten txikitan. Nere amari gertatu zitzaion orai esango dudana. Gauaz leihoan hotsak entzuten, eta ez jakin zerena izan zitekeen Kox, kox, kox, jotzen zioten kanpotik eta bera bildurrez hilik. Atera zen noizbait eta, uso bat.

-Zer nahi dun? galdetu zoin amak.

-*Meza bat nere izenean agintzea.* Bizi zelarik hitzemandako zorra. Basa eliza batean ere usoa agertzen omen da. Han hil zen norbaiten anima dela uste

du jendeak. Arramaio zahar batean estaltzen omen da, inork ez ikusteko.

Nafarroako herri askotan haurrak ere egiten zuten animen alde otoitza. Jendeari dirua eskatzen joaten ziren kalez kale eta, gero, elizan sartu-atera bat egin «Gure Aita» esanez. Auñamendi aldeko herrietan galdu berri da oraindik. Santuen eguneko izparringiak hain zuzen ere, harri haietako haurren esaerak jasotzen ditu. Oraintxe etorri da neregana. Hona hemen idazleak eman digun bilduma jakingarria:

Duela hogeitaz bost urte galdua da Zugarramurdin. Orduko apaizak eragotzi omen zuen *Behauzu Aita Gurei* (behar duzu Aita Gurerik), galdetzen omen zuten hurrek.

Mai baten Aitaguria errein dut? (Amaiurren). «Mai» hitza, mahadi izeneko diru xehearen laburpena da. Berdin erabiltzen zuten Azpilikueta eta Erratzun ere.

Beste batzutan ez da dirurik aipatzen. *Naizu Aita Gure bat?*, Urdazubi-ko haurren eskaintza. Arizkun eta Donamarian eskua luzatu eta *Mattuttine errain dut?* (Arizkunen) eta *Xilmo, xalmo*, bigarreanean.

Elizondo, Elbetea eta Oieregi-ko hurrek *matua* eskatzen dute. Berdin, *mattua* eta *matxua*. Lehen

esandako hitz beretik dator; *mahadittoa* besterik ez da *mattoa*. Emakumeei eskatzeko *izea* (izeba) erabiltzen zen Iruriten: *Izea maitua*. Gizonendako, osaba. Arraioz-ko esaerak laburpen gehiago badu: *Ixo mattuat* (Izeba mahaditto bat); bai gizon nola emakueentzat, gauza bera Ziga-n.

Ornoz-Mugaireko apaizari iranjak (naranjak) eramaten zizkioten erresponso denboran emakumeek. Gero hurrei banatzen omen zizkien eliz-atarian. Ordurako ibiliak ziren *Maittu, maittu*, diru biltzen.

Ituren: Ittungo haurrak *marabitto* esatean, marabeditxo hitzetik gertuago daude. Dirua eman aurretik belauniko jarriarazten omen zuten haurra. *Marabittu*, Oltz-en; *Gaixoa marabittu*, Sunbillan; *Marabitxo bat*, Zubietan eta, *Maraittu* Elgorriaga-n. Donezteben hitz berdina erabili obi zuten, *Marauttu, marauttu*, aldakuntza txiki batekin.

Lesaka-ko *Berentxi*, eta Almandoz-ko *Mixi birikua* beste kanta bat da.

Iruñeko diazkiak ez du ezer esan Luzaide-ko obituraz eta, handik lau bost egunera, manetofioa bizkarreran, Ibañeta aldera noa. Berandutu zait etxetik atera orduko eta Auritzen nintzen eguerdiz. Ostatu onik bada eta bertan gelditu naiz bazkaltzen. Ehizta-

rien bat edo beste, azken usoen atzetik etorria. Herria txukun eta hotz, beti bezala. Ortzanzurieta aldean elurra. Negu sarrera.

Domisaindukari ohitura berexirik baden galdetu diot ostatuko etxekoandre gazteari. Ezetz erantzun dit; berak ez duela ezagutu. Edari on batekin etorri da gero berek eskaintzen didatela esanez. Amatxi xabarra sukalde inguruan eta zerbait jakin lezake. Mahai txiki pare bat baizik ez zegoen gelatxoan sartu naute. Basurde buru iluna paretan, hortz zorrotzak agiri. Pertz ori eta pitxer zaharrak nunahi, apaingarri. Egote oneko gela. Ez banu hainbeste presa...

Besotik ekarri dute amatxi xaharra. Abegorri polita egin dit sartzean.

-Zer galdu duzu alderdi hontan? Ehiztari bihurtu al zara?

-Ele-xaharren ehiztari ni, beti bezala, erantzun diot.

-Bai, erran dit alabak. *Dominene* izeneko ohitura bazen Auritzen; aspaldi galdua da. Eskolako haunditxoena Domisainduko bezpera ondoan, elizaren erdian bildu eta, norbait joaten bazitzaien otoitzean aritzen ziren.

-Eliza barnean?

-Bai, bai; apaiza bezala.

-Euskeraz, erderaz ala latinez egiten zuten.

-Latin edo dena dela, liburuan ikasten zutena.

Dominene hitza, besterik gabe, latinetik dator: «*Domine, ne in furore tuo arguas me.*» Auriz-ko gazteak erdi apaiz genituen. Astirik ez dut eta gertaera jakingarri zombaiti itzulia emanik joan naiz Orreaga aldera. Auñamendiko lorea, betiko zoragarri; Euskal Herriko Ama polit. Otoitz labur bat eta Ibañeta gora.

Ez da polit arranoz mintzatzea. Ez dira usoak. Eta hoiek ere Jainkoak eginak. Txirriskin-go zuloan ikusi ditugu, gertu, harrika hiltzeko moduan. Ibañetako portua jeistean, dela erbi ala azori ikusi ohi da bidean. Sekula ez bezala, arranoak genituen oraikoan; eta ez bat edo bi; hamasei, hamazazpi. Gelditurik egondu gara begira. Ez nuen uste hain haundiak zirela; haundi bezain itsusi. Janak ziren eta beren hegaldatu luze haiekin lurra jotzen zutela, ezin ziren hegaldatu. Ardi beltzak izan balira bezala joan dira, lerro lerroan, bide medarra gora. Malda bideko haitz tontor batera igo eta hasi dira jasotzen.

Luzaiden edozeinek badaki animen eguneko berri. Duela une gutxi galtzen utziak dira zenbait ohitura berexi. Hilan eguneko *manteleta* seriotasun eta arres-

peto haundiko gauza izaten zen. Bizi dena, gutxienean uste den lekutik etorriko zen Animen egunerako -*Omia Saindutako*- herrira. Hilarriak apain eta garbi, etxeko beste gela bat iduri.

Haurrak ere beren eguna zuten. *De profundis* sosa, zen haien leloa. Eta gehienek egiten zuten, diruaren ondotik, elizako, itzulia. Eskuaraz, hori bai, latin guziak erromatarrei utzita.

Adiskide ikusten nenbilen eta gertakizun xahar bat etorri zait burura. Ez nekien galdegin ala utz.

-Oroitzen zira hilarritako keiaz? galdetu diot ama-txi xahar bati. Lehen berak errana zidan.

-Zuk errazu! erantzun dit. Eta nahi nuen hura zer zen jakin! Ene familiako baten enterramenduan nintzen Ezterenzubin. Gorputzari lurra eman ondoan nun ikusten dudan gizon bat, paperra eskuan, hilarrira urbiltzen. Hauts miko bat bazuen barnean.

Kurios nintzen zer egiten zuen jakiteko. Ezarri zuen paperra hilarri gainean eta su eman. Burrustan atera zuen garra; gero keia. Manteletadun bait nintzen ez nuen nere burua agertzera eman. Galdetu nuen, haatik, gero, zertako egin zuten. Keia zoin alde-tara joaten zen ikusteko zela, erantzun zidaten. Keia

joaten den aldetik etorriko omen da lehenbiziko hilaren kutxa.

Ez zen itzulia alfer egina; abiatzen ahal nintzen etxera. Ez nuen, halare, Arnegi ikusi gabe etorri nahi. Gauza berriak badira beti behean: orai, halare, sekula baino gehiago: aduana berria eta kamioi asko. Baina, Luzaide behera dioa. Hiru eskoletatik bi itxiak; irakasle bat baizik ez da. Lantegitxoren bat beharko litzake gazteak bertan gelditzeko.

Arnegi-n aspaldiko ezagun batekin egondu naiz. Harreman asko izan genuen garai batez. Esku tartean zer daramadan galdetzean egia esan diot, eta baliatu zait. Hona bere hitzak:

«Irisarri-n nintzen adiskide baten enterramendian. Hilarritatik itzultzean ez ninduten etxean sarzen utzi: behar zela lehenik suia egin. Jende anitz bazen eta inguru haundi bat eginik suia piztu zuten etxe aintzinean. Zertako zen hori, galdegin nien nik. Hilaren anima, erran zaten, etxekoen ondotik etortzen da; eta itzul dadin handik eta ez dadin etxean sartu egiten dakogu borta aintzinean suia.»

Euskal Herriaren jakintza ondo gabeko iturriak dituen putzu aberatsa da. Arrazoi zuen hiriko jakintsuak. Berak utzitako haria bigarren aldetik erdi betea

da. Beste egun bateko lana. Neretako izan balitz baino gehiago poztu naiz. Lagunekin ongi gelditzea gauza haundia da. Ez du dirurik ematen; baina, gehiago balio duen adiskidantza indartzen.

Etixerakoan, iluna genuen bide erdian. Ezertarako atsalde gutxi dago. Herriska batean «Txutxo» gizajoaren antzeko txakurra ikusi dut. Ez; ez zatekeen hura. Harek ez zuen naguserik eta, etxe polit baten aurrean etzanik zegoen hau. Gizajotarako jaioa ez inoiz hortatik aterako.

Ezteiak dira Udargi-n. Bera ez zela inoiz ezkonduko esan zuen, behin eta berriz, Borda-berriko lolik. Nahiago omen zuen, batez beste, edozein gizakirekin lo eginez bizi. Txikitan ikasitako seigarren agindua farregarri zitzaion. Seksu lokarriak sartu omen dizkigute gorputzean; haragi atseginen zapalketan hazi omen gaituzte. Bizia, bizitzeko dela esan ohi zuen lolik; berak ez zuen ezkontzeko asmorik.

Apaizarengana izana da, halare, Elizaz ezkondu nahian:

-Harritzen naiz zurekin, erantzun dio eliz-gizonak. Ez al zenuen zuk eliza aspaldi utzia?

-Utzia edo... dena dela. Ez dit ezer esaten elizak.

-Eta zergatik, orduan, Sakramentu bila?

-Beste biderik ez eta...

-Bide asko da munduan: askatasun osoko bideak, baso baztarra...

-Gaurkotz ez da aski hori; Estruktura zapalgarriak, gurasoak eta legea kentzen ez diren bitartean Jainkoa aitortu behar.

-Elizan ezer egiterik ez duzu! Jainkoa guretzat beste zerbait da. Herriko etxean, behar bada...

-Bataiatua naiz.

-...eta Aitaren etxetik irrutira joana.

Aurpegi hitsa zuen gaur hauzoko lolik. Lau bost ila-betez haurdun gertatua dela zioten mihi gaiztoek; lehenago ezkondu beharra, gehienen eritzian. Berari axola haundia dionik ez dirudi. Aita amak erabat lur jota dabiltz eta lotsa bizian anaiak. Ez zuen ezkondu nahi.

-Zertako ekarri ote nuen mundura! zion herriko artzaiari neskaren amak. Hutsa da beretako bakarrik galdua balu lotsa; denoi galduaraziko digu azkenean.

-Euskal Herriko alaba! Nork esan!!! erantzun dio apaizak.

Ez berehalakoan baina, hortaratu denean pozik. Ezkondu zazu behingoan, eta Jainkoak lagun dakiola.

-Maialen; ez da hori. Kristau zeranez ongi dakizu zuk Sakramentuak fededunentzat ezik, ez direla ezer. Jainko gauzak lohitzten eta zapaltzen baizik ez gabiltz. Jainkoagatik! Ezin dut egin.

-Otoi! Ez da halakorik inoiz entzun Udargin!

-Beharbada, ez da azkenekoa izango.

-Eta guri gertatu behar!

-Zuri ez baino, berari. Jainkozaletasuna ta sines-tea nor beraren gauza da. Duenak badaki eta ez due-

nari, utzi. Bakoitzaren sentimenduak errespetatzen ikasi beharra dugu.

Negarrari eman dio ama gaixoak. *Zertako ekarri ote nuen nik mundura! Bihotz gabeko alaba! Apaizak zer erantzun ez daki.*

-Jendea elizara bildu beharrean, sakabanatzen ez ote zabilzaten apaizok!

-Gogorra da zuk diozuna, Maialen. Ez zara zu halakoa; ama-minak esanarazten dizu, nunbait.

-Ez dakizu zer den ama izatea. Ama izan denak bakarrik daki ama baten berri.

-Ama horren antzeko da gizonentzat eliza.

-Ez du gaur asko iduri.

-Ez al duzu, ama bezala, zure alaba inoiz gogor hartu?

-Gaurko gazte hauekin ezin du guraso batek nahi duenik egin.

-Ez da, orduan, beste biderik berek nahi dutena egiten utzi baizik. Hortan nago ni.

-Begitan hartu gaituzu eta ez da besterik. Dirudunak izan ba gina! Ez zen, ez, hori gertatuko!

-Barkatu, Maialen. Ez dakizu zer esaten duzun. Ez dut hortan errurik. Nik ez baino, zure alabak du bere bidea aukeratu.

Hizbide haundiak dabiltz azkenaldi hontan herrian. Ioli gaizki dabilela uste dute batzuek; besteok ere izan gara gazte hainbeste arrokeria gabe. Lagun txarrek kalte handia egin omen diote. Apaizaren aurka atera dira beste zenbait. Ez omen da hori etxetan bakea sortzeko biderik hoberena, ez ardi galduaren bila joateko modua. Arin hutsak omen dira oraiko apaizak; nun da garai bateko apaizen errespetoa!

Herriko artzainaren etxetik ateratzean aldi txar bat izan du Maialen nahigabetuak. Bere etxeko ezkaratzean zabal zabala erori da. Sendagilea lasterka deitu ondoan zainena izan dela esan du.

Zainendako eztigarria emanik lo gelditu da eria. Apaizarengana jo du gero sendagileak

-Paper txarra da zuretzat, esan dio adiskide bezala eliz gizonari; eta ez nuke hauzi hontan sartu nahi. Sendagile naizenez Maialenen berri emango dizut bakarrik. Bihotzetik gaizki zebilen eta oraiko hontatik joan liteke. Oso barne hartua du alabaren trastukeria.

-Ez zuen zergatik harturik. Alabaren jokabideak ez du inun gurasoen bizia kutsatzen.

-Hotz hotzean begiratzuz arrazoi duzu. Baina, giza mailan bihotza ere hor da. Ama!

-Aitak zer dio?

-Ez du hitzik esaten; ixilik dago. Bildur naiz ondore txarra ekarriko duen. Askoz hobe litzake norbaitekin hustutzen joango balitz.

-Berez zentzuduna eta ixila da. Amak baino hobeki ulertuko du.

-...edo ez. Burua husturik bezala ezertaz konturatzzen ez dela dabil gizajoa. Beren indarrentzat haundiegia erori zaie. Sineste arineko batzuk izan balira ere... Baina, nor eta hoiek!

-Eta zuk zer egin zenezake?

-Sendagile naiz, zure egitekoa da bestea.

Kezkatsu gelditu da D. Babil. Ustez argi dago bereztzat loliren jokabidea; Jainko bidetik alde egina du, utz bitzaio here bidez ibiltzen. Ez zuen Kristok inor indarka hartu ta ereman: *norbaitek nahi badu...* Zalantzarik gabe, garbi ikusia.. Beste aldetik, berriz, gurasoen osasuna eta bizia arriskuan. Zer egin?

Zorabioak etortzen zaizkiola-ta biharamonean ez da jeiki Maialen. Jateari erabat utzi dio eta ahultzen joango da. Hogeitau lau orduz ez da haren ahoan urik ere sartu. Apaizak badu beretako hainbat. Gau santu guzian ez du begirik itxi eta gotzaiarengana joateko erabakia hartua du.

-Neskarena ikusirik dago, erantzun dio apezpi-kuak. Gurasoendako izan litzakeen ondore txarrak ditugu aztertu behar.

-Edozein gauza gerta liteke han...

-Elizaz eskontzea eskatu al dizu neskak?

-Eskatzez, eskatu du.

-Baina.., berean delarik!

-Noski.

-Lege aldetik ezin zenuke ezkondu; baina, ez da hau lege kontua. Araudi guzien gainetik dago artzain eta aita bezala dugun eginkizuna. Sakramentuak dira gizonentzat, ez gizona sakramentuentzat. Gehiegizko hestutasunez baino esku zabalez errudun gertatzea nahiago dut munduan. Geuretzat gure kontu hartze hestuenak.

Ioli ta Iurgi-ren ezteiak ziren gaur Udargin. Ezer gutxi esan daiteke gertakizun hontaz. Beti bezala egin dute dena; Jauna hartu ta guzti. Dardara latzak eragin dio D. Babil jatorrari; Ioli berriz, lasai. Gazte jende asko bazkarian eta zarata haundia. Ozpin garra-txaren bixia bazela diote, halare, han egon direnek. Herriko apaizak ez du joan nahi izan.

NEGUA

Ioar. Nola esan! Udargi-ko neskarik ederrena da ioar. Zuriak eta lirainak izango dira munduan; baina halako gutxi. Egokiaren neurrira egin zuen bere amak. Urre argidun motots legunez estalia du gerriraino bizkarra. Bere berri badakien galdetuko nuke nik; konturatzan ez den haurtxo bat bezala agertzen da beti. Aho zabalik denak eta bera lasai.

Zer dela ta etorri zait orai gogora Erroxali-ren alaba? Gogora ez ezik, begien aurrera. Herriko etxean dagoen kutxatilara karta batekin dator. Hemezortzi urte polit eta zorakeria gutxi; ez dut uste senargairik ere baduen. Nola nahi dela, hori bere gauza da eta nik behintzat ez diot inoiz galdetuko.

Haize nahasiekin sartu zaigu negua. Gaurkoa latza da. Teilaren bat edo beste, han hemenka, lurrean. Nekazariak pozik daude. Hego haize idorra gauza ona omen da negu sarreran.

-Nun zabiltz, ioar? galdetu diot gero etxe aurrean.

-Uste al duzu neronek ere badakidan?

Txuria ez baino argizari urtuaren antza eman diot aurpegian. Ondora etortzean konturatu naiz. Begiak ere sartuak eta betiko alaitasun haren faltan, zerbait esangura bezala.

-Zer duzu, loar?

-...ez da hemen esateko gauza. (Eta hortzak estutu ditu.)

Duen guzia agertzen du. Ez du txokorik barnean. Zerbait baduelakoarekin utzi nau eta, ez jakin nundik jo. Haize bolada lotsa gabeko bat bere gonekin sartu da eta bizkarreko txuma guziak aurpegira bota dizkio.

-Nahi baduzu mintzatuko gara, esan dit gero, garrantzirik eman gabe.

Gelan sartzean su ederra genuen. Txokoan jarri da. Orduan konturatu naiz zer hotza egiten zuen atean.

-Zure terraje horrek zer esan nahi du? galdetu diot. Gaizki al zaude?

-Bi egun badu ez dudala begirik itxi...

-Adineko gauzak!

-Ez dakit...

Axola gutxiko erantzuna. Ezer adierazi ez zuen begirada huts batekin begira zegoen, ordurako, suari. Garraren ika gorria zebillen bakarrik bere begitan dantzatzen. Halaxe egon da denbora luzean. Nik ere ez diot ezer esan.

-Latza da neri gertatzen zaidana, dio suari begira dagoen eran, beretako hizketan ari balitz bezala.

Ametsetan nabilen hala burua joaten zaidan ez dakit, batzutan.

-Ioar!!!

-Ez al didazu entzuten?

-A, bai! (Begiak igurtzi ditu)

-Barkatu. Galdu egiten naiz, eta nun nagoen ez dut jakiten

-Nekaturik zaude. Lo falta agiri da. Barne hortan zer egosten den jakin behar orai. Beste egun baterako utziko dugu..., iduritzen ba zaizu.

Gerrikora bota du eskua. Uhal zabal batekin hartua du bular azpia; paper bat atera eta eskura eman dit hitzik esan gabe. Lau bost tolestan bildua dago. Zabaldut eta, orri haundi bat bi aldetatik idatzia. Emakume eskuz eginga da. Hasieran nekez irakurtzen nuen; gero jarri naiz. Trebetasun eta ausardia adierazten du egileak.

Kezkatsu ikusten zaitut... burua galdu behar ote duzun, bildur zera. Berritze sakona dator zure bizian; jaiotza berri bat dela esango nuke nik. Zorionak.

Izan ere, iraultza ez da aldaketa hutsa; lehengo txakurra ustai berriarekin uztea. Haustu ta porrokatu behar da lehenik oraiko egoera maltzurra, ez dedin

hazirik gelditu; gero etorriko da anaitasun orokarraren jabegoa.

Eskutitza irakurtzen ari naizen bitartean loar hila bezala dago. Begiak haundi haundi irekiak ditu orai; suaren irudia beste susmorik ez da ikusten begitako ñiñian. Ezaguna egiten zait idazkia; beste herritar batena balitz bezala. Ez; nagoen ixilik! Ezin dut sine-tsi. Lehen behintzat ez zen hala.

Gaixo loar! Monjatxo bat bezala zabiltz, esaten dio gero. Kezka hoi en berri banekien nik ere. Heziketa zapaltzale baten ondore beltza da. Denbora haiek oso atzean gelditu dira. Askatasunak jasoko gaitu; seksu-lokarriak ez dira hoberenak. Hautsi itzazu behingoan. Giza maila hain da zabala bide meharretan sartzeko!

Aizu! Zergatik ez zera Gorkarekin bihar guregana etortzen? Bizitegi bat gure alde hartua dugu bost lagunak. Etorkizunari begira elkar lagundu behar haundia dugu. Giro jatorra hemen ikusiko duzuna.

-Gorka istilu hontan sartua al dago?

-Ni bezala.

-Eta noraino sartua zaude zu?

-Ez dakit. Iosunen laguna izan naiz beti. Iosune ikastetxera joatean harremanetan jarraitu genuen, eta ez dugu adiskidantzarik galdu. Hori da dena.

-Baina, Bilbaora deitzen zaitu orai...

-Bai; eta zer? Ez naiz joan, gainera; hemen nago.

-Bildurrez?

-Ez dut hauzi hau garbi ikusten.

-Esate baterako?

-Amodia. Gaur honekin eta bihar beste batekin, ezkondu gabe bizi nahi zuela aitortu zidan lehengoan losunek. Lur jota utzi ninduen. Ez nuke nahi neretzat. Nora goaz!!

-Esatea bada baina... hori egiten al du berak?

-Pentsatzen ahal duzu baietz, gogokorik balin badu behintzat. Ez da inoren bildurrez atzean geldituko. Ezagutuko ez banu!

-Maiz aski izango du, orduan, mutila. Izena ere, gure artean badute halakoak beren izentxoak. Hala politagoren bat asmatua diete?

-Gogorregi mintzo zara; ez du diruz ematen gorputza...

-Merkeago, orduan.

Gorritu egin da loar eta ez du hitzik erantzun. Betiko begirada argia piztu zaio eta ez zaio burua joaten. Berriz ere gaiari lotu da:

-Orri guzia irakurri al duzu?

-Ez.

-Ikusazu, ikus...

Ar-emeen arteko jokabidez mintzo da gero. Gorkinkeriak. Nor beraren atsegin kontua; ez omen da beste legerik munduan. Neska batek idazteko, zer astakeriak! loar ixilik egon da eta nik ere ez diot ezer aipatu. Esateko haundirik ere ez; garbi dago jokua. Askatasunaren izenean, abere eta basapistien jokabidera itzuli beharko luke gizona. «Txutxo» gizajoa! Hala zebilen hura zaparrrik zapar eta auto txirrikak ondatzen, herriko txakur guziak etxetan loturik zeuzkaten denboran. Baztartua.

-loar; zure adiskideak egarri asekaitzen bat badu berekin. Gizonaren problema bakarra hori balitz bezala mintzo da. Beste gai asko bada liburutan-eta, horrekin gelditu zaigu.

-Familiar du bere biziko burruka. Ez du inoiz maitasun girorik etxean ikusi.

-Ulertzen dut. Engels idazlearen lerrotik dioa; «Familiarren Hastapenak» izeneko liburua irakurria du, eta gaizki iretsia. Ez luke familiarik nahi munduan.

-Pozik gabeko zama latza gertatu da haiena.

Iosunek dio gizon ezkondu batek utzi dezakeela emaztea eta haurrak, beste emakume batekin joateko. Berdin egin lezake etxekoandreak, bai alditxo

baterako nola betirako. Baina, jokabide honek baditu bere koxkak.

-Noski! Emaztea hurrekin uzten duen gizonaren askatusuna, ez da emaztearentzat atsegin izango. Bestearen haurrak jasotzera norbait joango zaio! Eta biak berdin egin balezate nork hazi umeak?

-Ez zabiltz gaizki, loar. Eta beste gauza bat esango dizut orai. Abere mailara jetxi nahi badugu, haien jokabidea datorkigu: burruka. Katu arrak ere hil egiten ditu katakumeak.

-Eta bihotza?

-Hori da! Gizona ez da eskuz esku dabilen burnizko tresna bezala. Bihotzak baditu bere lokarri kuttunak.

Hamabiak. Konturatu gabe joan zaigu denbora.

-Pozik nago. Buruko lokarria askatu zait. Hau beste gauza bat da. Eritzi gaizto bat hartua nuen...

-Emakume guzien kontua. Lo egin behar zenuke orai; *relax* aldi bat ona hartu eta lo.

-Bai; bazkal ondoan.

Zutitu eta su ilaunak haizatu ditu. Belaun azpiraino heltzen zaizkion anketakoak ikutu eta beroturik zeudela konturatu da.

-Aita Fermini esan behar beste batzuk erosteko, hauek erretzen bazaizkit!

-Pozik alabatxo bati!

-Zuk hala esaten duzu. Alabok asko behar izaten dugu gaurko egunean, eta azkenean denak aspertuaraziko ditugu.

-Gorkarekin hitz egiteko biderik izango al nuke?

-Nik uste baietz. Itzuli bezain laister esango diot.

-Zure esku, orduan.

-Bai. Agur.

Ioli eta Iurgi-ren gauzak ere ez omen dabiltz ongi. Ez dut uste inoiz ongi joan direnik. Bi ilabete eta gutxi gehiago ezkondurik, eta elkarrengandik berexiak. Herri txikietako gauza haundiak. Hizbiderik aski ematen ari dira behintzat.

Nik inoiz ulertu ezin ditudan gauzak badira munduan. Bi ilabete ez da ezkon-berri batzuek elkarrekin hausteko epea. Lau bost urte izan balitz ere! Iurgi da, batzuen eritzian, gau-txori errones sosega-gaitza.

Ez du emazte, bakar baten magaleko izan nahi eta hautsi du. Beste alde batetik jakin dudanez, Ioli bera ere bidean lumak uzten aspaldi hasia genuen. Herriko zaharrak diotenez, ez omen da bizien artean ezertaz harritu behar; bere antzekoren bat gabe ez omen du inor uzten Jainkoak. Topatu behar!

Bere lanbide zaharrera itzulia da Joli; senarrak ez du berea utzi. Emazteñoa gurasoekin da eta bestea ostatz, bakoitza bere bidez bizia bulkatzen joateko asmoan.

Gauza hauek herritan, gau guzian dunbaka ari den mozkor hotsak bezala dira. Heldu bezala hartu behar! Bere leiko azpian, lorik egiten ez uzteko; edo irrutiko pertza, beste norbaiten aspergarri. Ioliren aita-amek

leihu azpian dute, oraikotz, matraka. Aitak ixilian irentsi ditu alabaren arinkeriak; eta luzaz irentsi ere. Hemezortzi urtez ez da sokako ahuntza izan; eta hemeretzigarrenean leher zaparta egin du. Baina, aitak du osasuna galdu. Iruñera eramana, oso gaizki omen da.

Ama gaixoa, hori; gaizo bat. Ez du orai apaizarengana joaterik. Aingerutako zeukan bere alaba; aho txarren gauzak ziren alabarengatik esan guziak. Aitak ere ez zituen jakin behar. Ezkondu, bai ezkondu! Eta haurra mundura etorri baino lehen! Zuriz jantzita, etxealde oneko alaba bezala... Gezurra.

Orai dira negarrak eta lotsa. Bere etxean ez omen da inoiz halakorik entzun. Tresondagarria, erori zaion gizona. Inungo amak mundura ez ekartzekoa. Gaixo loli eta aita gaixoa! (Jeremias zaharraren pleiñuak).

Iruñen hospitaleko ezkaratzean, loli eta bere ama. Senar-emazte gazte batzuk beren haurtxoarekin, saetsean; eta berrogei ta hamar bat urteko gizakia aurrez aurre. Denak ixilik. Ama gaztearen anjuak eta haurraren barretxoak beste bizi susmorik ez da han.

Gaxozain bat sartu da zuriz jantzirik. Begirada baten ondotik, Ferminen etxekorik baden geldetu du. Emakume biak elkarri begiratu eta zuti jarri dira.

-Bere emaztea al zara?

-Bai; eta hau alaba.

-Sendagileak zurekin mintzatu nahi du, esan dio amari.

Ioli-k burua apaldu eta txarrena somatu du: «aita hila izango da; ama prestatzen dabiltz. Zerbait gerta dakion bildur izan dira.»

Gaxozaina eta biak atera ondorean Ioli berriz eseri da. Zuri dago. Zergatik ez zioten berari ere zerbait esan behar!

-Zer du zure aitak? galdetu dio haurtxoaren amak.

-Bihotza eri, erantzun du berak bururik jaso gabe.

Hortan moztu da solasaldia.

Sendagilearen gelan sartu orduko, berri txarrak eman beharrean arkitzen dela jakinarazi dio.

-Pausatugo zen!! jardun dio hitzetik hortzera emazteak.

-Ez; bizi da. Baina, hortik gora ezer gutxi...

-Bizi den bitartean, itxaropena.

-Ez asko; eri haundi da. Zainetako estualdia du. Sikiatra naiz eta azken saioa egin nahi dut. Hortarako zure laguntza behar!

-Agindu.

-Azken aldi hontan nahigabe haundirik izan du?

-Nahigabeak hobeki besterik baino.

-Zer edo nola?

-Alabarekin. Inoiz etxean ezagutu ez duguna...

-...jarrai.

-Ezkondu orduko berexi dira.

-Oso barne hartu al du aitak?

-Ixila da; ez du agertzen. Baina, nere ustez bai.

-Ixila... Hori da koxka. Berak egosten ditu. denak,

norbaitekin hustu beharrean.

-Eta nun dabil alaba?

-Hemen dago.

-Etor dadila.

Zuriz jantzitako gaxozainak lagundu du ama eta loli-rekin dator. Inork ez daki zer dakarren honek bere barnean:

-Zu al zara Fermin-en alaba?

-Bai, jauna.

-Zainetako sendagile naiz eta zure aitaren ardura-duna. Zer esanik ez, oso gaizki dago. Entzuten du, burua ere argi; bihotza dabilkio zorabioka. Gure esku dago zertxoren bat bere estuasuna arintzea. Lagunduko al nauzu?

-Behar den guzia.

-Esaidazu, orduan; izan al du aitak zurekin harremanik azken aldi hontan?

-Gutxiegi...

-Noiz mintzatu zara azkenik berarekin?

-Gaizkitzeko bezperan.

-Zertaz?

-Zera... umeaz.

-...esazu.

-Ezkondua naiz. Hala diote, behintzat... eta nere alde bizi naiz. Beraz...

-Gurasoen gogoko ezkontza ote zen?

-Berengatik ezkondu nintzen; nik ez nuen nahi.

-Zer zion orduan aitak?

-Ezer ez. Ez zidan inoiz hitzik esan.

-Zuk ez nahi, eta aitak hitzik ez; beraz...

-Amak bete zuen denon aldia.

-Ezkondu ere bai?

-Ez dakit zer den hori. Gizonen paperretan ez dut sinesterik eta Jainkoarenik ez dut ikusi.

-Elizkoia al zen zure aita?

-Santu guzien hautsak berak musukatzen zituen elizan.

-Hau da jakin nahi nuena. Eskerrik asko.

Bi eskuekin burua harrapatzen duela gelditu da sendagilea loli gelatik atera ondorean. Ez du hain bihotz gogorrik inoiz ikusi. Bai bat eta bai beste, liburutarako bikote. loli zuhurtu arteko gari pila ez liteke txarra baserrian.

Herriko apaiza etorri zaio, galdezka, atsaldean.

-Zer derizkiozu Ferminen familiaz? galdetu dio sandagileak.

-Gizon ona da. Beharbada onegia izan da etxean.

-Zenbat haur izan dute?

-Alabaño hori.

-Zoritzarreko ume bakarrak! Zenbat zorigaitz baztartuko litzake bidean, Jainkoak umerik botako ez balu bakarra izatekotan!

-Eta Jainkoak eman nahi arren, amak hartu nahi ez badu?

-Urkamendia bilatu du.

-Eltze haundiko sukaldetan ere badira baba bikor gogorrak.

-Bai, noski! Baina, bakarkakotan gebienak!

-Zuk diozularik...

-Beste gauza haundirik ez bada ere, lehen hori behintzat adierazten zenuten ongi apaizok; orai sozial gaia baizik ez duzue ezpainenetan. Bar-bar-bar zer, eta

Che Guevara aldaretan jarri beharra! Har zazue behingon Jainkotzat! Burua galtzen ari gara.

-Eta Ferminnek zer dio?

-Ezer onik ez.

-Ez al da aterako?

-Jainkoak daki... (biak ixildu dira.)

-Zuk ezkondu al zenuen loli? galdetu du sendagi-leak.

-Ez gogotik.

-Ederra egin zenuten behintzat! !

-Sozial gairik ez zeneko seigarren agindua, dela medio...

-Orai ez hau eta ez hura. Barkatu baina, lehen zuek egiten zenuten aitortza kendu bada, kendu; sikiatraren leihotik agiri da mundua.

Fermin gizajoaz galdetu ez duen gutxi izango da Udargi-n. Denak maite zuten. Don Kosme, herriko sendagilea, lehenbiziko egunetik joan zaio Iruñen ikustera. Zainetakoaren laguna da, eta egun batez deitu ta, esaten dio:

-Aizak, Kosme; egia esan behar diak: zer gizon modu ote duk ezkondu orduko emaztea utzi duen hori?

-Ioli horri tokatu zaion gizona nola den ez zekiat; baina, gizon horri erori zaiona nor den bai. Bizi guzian izan duk arina, pinpirina. Besterik ez eta, horren begietatik ikusten zian bere amak. Alabak oratu eta amak estaldu, zer zekian aitak etxeko lixibaz! Eta amak berak, erdiaren erdi. Baina, hori txikitatik... Beti.

Azken urte hauetan pitsa bezala joan duk ahotan gora saltarina. Erraztasun huendiko gauzak esaten dituk mutilen artean; baina, oraikoan egiaren antzean. Gero, saboneroen etxean erortzen ez dena, lerratu egiten dela..., eta lerratu duk haurdun geldituaz.

Lehen ere izan dituk holakoak, eta hortaz harrizkerik ez zegok. Hizbide batzuk gora behera, denborak estalduko ziken hori ere. Baina, ez; bera, ez izan nun-bait estaltzekoa! Hasi duk ez zuela ezkondu nahi esaten; inungo gizonari bizi guzirako lotzea zapalketa lotsagarri bat besterik ez dela; maitasunaren mugabakarra bakoitzaren gura dela, eta abar, zer hego haizearen harrokeria!

-Eta burutik nola zegok?

-Hago, hago!! Ez dituk haundienak entzun. Gu atzeratuak omen gaituk, eta bera duk gaurkotasunaren izenean mintzo.

-Horrekin badiat aski.

-Nolabait ezkondu eta orai elkarrengandik berexi dituk; baina, haundiena ez diat esan oraindik. Asmazak, sikiatra haizenez.

-Gutxiz gota behera ikusten diat azkena.

-Zazpi ilabeteko haurra bota dik.

-Eta aitak bazekian hori?

-Ez, to!! Begirik duenak ikusten dik. Ni deitu orduko, odoletan urtua zegoan zorigaitzokoa.

-Eta hik nola jokatu huen?

-Lehenik odola sartu eta gero Iruñera ekarri nian. Gainerakoa bere bidez zihoak.

Iurgi-k aurrera darama hauzia. Herriko agintarien deia izana dute biak eta goizean du konponbideko elkar hizketa. Epaile, Andoni Txuri, nekazaria. Kiko ta Joan Motza, lekuko. Aiundamenduko idazkaria ele biltzale.

-Zuen artean gertatua ez da itxura oneko gauza, esan die Andonik. Orain baino lehen ere izan dira hala-koak, eta bildur naiz ez den azkena izango. *Etxeko sua, etxeko hautsarekin estali behar dela* entzun izan diet nik gure aurrekoei; eta zuen gora beherak, hemen, gure artean konpontzea liteke hoberena. Hortara gatozkizue. Ez dugu besterik deusetan sartu nahi: bakoitzaren jokabidea nor beraren gauza da.

Beraz, andere loli, lurgiren emazte zaitugu?

-Hori diote liburuek.

-Eta izan ere, ez al da hala?

-Ez du axola haundirik neretzat.

-Eritzi berdinekoa zara, lurgi?

-Adarrak utzi eta goazen harira, erantzun du senar-
rrak. Emaztetako hartua nuen hau, nere umearen hiltzale
bihurtu da. Aita bezala nator hiltzalearen aurka.
Hala, ez dut eskubiderik?

-Noski.

-Hori da! Gizonak beregan eta nere baitan eskubi-
de guziak; nik berriz, nerekin ere ezin agindu. Entzun,
jaunak! Nere askatasuna osoa da eta ez dago salgai.
Nere gorputzean, nik baizik, ez du inork agintzen.

-Ni ez naiz, jakina, lege gizona, erantzun dio Ando-
nik; eta hamar urteraino bakarrik ibili nintzen eskolan.
Noizbait ikasia dut, halare, bakoitzaren askatasuna
beste norbaitenarekin mugatzen dela, soro bat beste
soro batekin bezala. Eta nere eskubidea, bestearena
hasten den pundu berean amaitzen dela.

-Eta eman dezagun ez nukeela, senar bezala,
zurekin eskubiderik, lotu zaio lurgi; bota duzunak izan-
go zuen behintzat, jaiotzeko eskubidea beste edozein

amarenak bezala! Ez al duzu hortan, zeutako eskatzen duzuna beste bati ukatzen?

-Norberaren barneko hauzia bere gauza da; eta barnean dagoena arrotza. Nahi badu emango dio sarbidea eta nahi ez badu uka; eta komeni ez bazaio bota. Datorrenaren bizi-nahia baino lehenago da aurretik dagoenaren bizi beharra.

-Nora goaz, loli, bide hortatik? erasotu dio bekain beltzarekin Joan Motzak. Ez nuke gibelik hori egiteko. Ez al duzu lotsarik hartzen? Esaten ere!!!

-Iraultza! Betiko bidetik joanez aurreratzerik ez legoke. Badakit ez dudala askatasun zabal hori nik lortuko; baina norbait hasi behar! Lokarri zapaltzaile guziak porrokatzen dizkiegun egunean izango dira gure haurrak beren etorkizunaren jabe.

-Zazpi ilabetetan ebaki duzuna ere bai? moztu du lurgi-k.

-Jaunak, alferrik gabiltz. Gaurkoa ikusirik dago, erabaki du Andoni Txurik. Goazen etxera.

Arratseko hamaiketan ataria joka, loar beste hiru mutilekin. Seietarako ilundua da sasoi hontan, eta iduri askoz beranduago zela. Sukaldera sarrarazi ditut; epelki goxoa somatzen da sartzean.

-Berandu izango da zuretzat! dio loar-ek.

-Zuendako bezala.

-Gau txori bihurturik gaude gu.

Hiruetan bat Gorka da. Hemeretzi urte, lodito eta gure gauzetaz kezkatua. Herriko fabrika ari da lanean. Xabier zurgintzan ikasten dabil; eta gazteena, Patxi, ikasle dugu.

-Zer moduz Bilbo-ko itzulia? galdetu diot Gorkari.

-Ongi. Lanean baino hobeki.

-Ezagutzen zenuen hiria?

-Ez; ez nintzen inoiz izana.

Hango lanbro zikinaz okaturik etorri da Gorka. Mendialdeko haize garbiaz oroitzen zen. Etxe haien aurpegi beltza ikusi-ta, bertako jendeen birrikak nola ote zebiltzen zion berak.

-Iosune atera zen autobusera. Lehenbiziko galdera, loar nola ez zen nerekin joan. Ezin zuela, erantzun nion; lan askorekin dabilzela etxean.

(Irria atera zaio neskari. Elkarri begiratu ta ixildu egin dira.)

-Gezur txiki bat, dio Gorkak; ez nuen beste atera biderik. Iosunek ere ez du sinetsi eta halako keinu makal bat atera zaio.

-Nik egun berean idatzi nion. Hartua duke. Egon lasai; pasatuko zaio. Nere kontu! esan digu loar-ek.

Nortasun haundiko neska da loar hau. Mutilak baino askoz aurrerago dioa erabaki zorrotzak hartze-ko garaian. Lokarri beharra izaten du batzuetan. Baina, berak esandakora dijoaz denak, azkenean.

-Itsas-ontzi haundi bat ikustera eraman nau lehenik. Liberiako ikurrina zuen. Zer gauza ederra! Donostiako txalupak ikusita, itsasoko berri banekien nere ustez. Bai, bai!! Gizajo batzuk besterik ez gara.

-Aizak! Itsas-ontzi bat ikusteko deitu al zian Bilbo-
ra? esan dio Xabierrek. Lehenik gosaldu behintzat!

-Hi ere latza, gizona! nere modura. Egun guzia egongo nituan ni jan gabe hura ikusten. Gosaldu, etxean ere egiten diagu.

Zerbait hartuko duten galdegin diet. loar, Patxi eta Gorkak ardo gorria. Xabierrek ura eskatu du.

-Hori merkeena, esan dio neskak, pipa belarra ateratzen duela.

-Bizioa besterik ez dira jende hauek! erantzun dio erdi barrez. Honen amari esan behar, garai batez, bere alaba gau-erdi aldera mutilekin ardo edaten eta ikazkina bezala erretzen lasai ibiliko zela! Buruzpide ona! Goazen, goazen harira; behar ez direnak aterako dira ta bestela.

-Gizon txiki beltzaran batzuk bakarrik ikusten ziren portuko lanetan. Haien kopeta iluna! Inun argi izpi bat somatu ez duten begiak zirela, esango nuke nik. Bihotza zimurturik gelditu zitzaidan.

-Ioar etorri behar zuen, ioar, hau ikustera!, bota ziden aurpegira. Muxarra bezala, beti zokoan sartuta!!! Denondako da on, munduan zer gertatzen den jakitea.

Hotz zen. Gu biok baizik, inor ez itsas-ertzean. Losuneri begiraka ez ziren atertzen gizon txikiak. *Atoz-kit, bihotza!*, esan zion batek nunbaiteko doinuarekin. *Grua horren puntan egin nezake biontzat kafi bat, maitasun zimiko bat zuregandik hartzeagatik.* Losunek irriño bat egin eta pozik gelditu zen.

Ez al-duzu entzuten, esan zidan gero, langile hauen intzira hestua? Nor oroitzen da goiztegi hotzetan portuko gizonez? Zortzi egunetik behin jango balute bezain beltz jartzen zizkidan losunek gauzak. Zinez,

lan txarra iduritu zitzaidan portukoa. Baina, nekazariak ere baditu egun gogorrak. Bere aita ikusi behar bisutsarekin mendian; artzainaren bizia edozeinena bezain latza da neguan. Ez nion hitzik erantzun

-Sinfonia hau guzia zertara heldu zen jakin nahi diat nik, esan dio Xabierrek.

-Laster ikasiko duk: hi heure lantegian burgesa haiz; eta ni ere bai. Ez omen zekagu mundu zabaleko langileriaren berri; eta jakin nahi ere.

-Gu burgesak bagaituk, bera zer ote duk? erantzun dio Xabierrek. Jaio zenetik liburutan ari duk eta ez zioz aitari soro lanetan inoiz esku bat botatzen. Bere kideko neskak aspaldi lanean hasiak dituk herrian. Ez al da hala, loar?

-Noski! Ikasten ari da eta ez diot ezer kentzen; baina, bera da gure lagun guzietan, aitaren kontu bizi den bakarra. Besteok geure lanetik bizi gara, Xabierrek dioen bezala.

-Eta gure burgeskeria egunoro goizeko zortzietan lanera joatea izango da, erantzun dio Gorkak. Halakorik!

Patxi ixilik egona da; nik ere ez diet orai arte ezer haundirik erantzun. Halare, zerbait esatekotan, burges izatea zer den galdetu nahi nuen.

-Beren ustez garbi dago: geure kezkak alde batera utzi eta Andaluzia, Irlanda edo Viet-Nam aldean gertatzen direnetaz arduratzea. Egin dezakegun lana galerazi eta ezin dezakegunekin burua berotu ta erre-tzea, dio Gorkak.

-Andaluzia ez zegok hain irruti. Zergatik ez duk alderdi hartara joan eta jende haiekin lanean hasten? esan du Patxik.

-Hangoei bertako problemaz mintzatzea burgesa izatea bai duk?!

-Zer nahi dute orduan hoiek? galdegin du loar-ek.

-Iraultza, indar guziak sakabanatzea da. Egoera hau berritu ez baino, porrokatu egin behar omen da, beste bat sortzeko. Bide guziak on omen dira hortarako.

-Orai ikusten diat, esan du Xabierrek. Aisa gaituk burgesak geure egunoroko izerditik bizi garenok! Lantokiari beharko zioagu su eman eta erraustu, beren lorategian gure izenak sartzen hasteko. Gero ahoak josi eta jan gabe bizi!

Talde txiki hau berotzen hasia da. Elizako erlojuan gauerdia. Elkarren berri jakitea zein beharrezko den ikusi ondorean, Gorkaren Bilbo-ko harira itzuli dira.

-Eguerdian, esan du berak, losune ta bere lagune-kin bazkaldu nuen. Iraultzaren atzetik etorriko litza-keen agintariatza, herriarena izan beharko luke.

-Hori, hori gurea! Hi lehendakari ta ni lehenbiziko ministro! dio irriz Xabierrek.

-Baina, orduan ere norbaitek ari beharko likek portuko lanetan, grua haundien azpian; Eta trenen gidari gauazko bide itsutan, beste batzuk gustora jarrita joateko. Ala ez diagu trenik behar? Aurreramendu kazkarrak izango diagu bestela; Eta beste burubide bat heldu zaidak bat batean: bide luzetarako ez al diagu ohedun trenik izango? Eta oherik balin bada nork lo egiteko? Udateko jende arrotzen zer esanagatik besterik ez izanik ere, Paris-tik Lisboa-ra dijoazenak behintzat bidaliko ditiagu beren bidez. Eta gauza onak izanki geuk ezin balia? Ala izango dituk herri agintaritza hortan ere dirudunak!

Gorkaren arrazoibidea amaiturik, loar mintzatu da:

-Agintaritza hortan sartzerik izango dudan ez dakit. Eta nere ustez herria naiz! Xabier eta Gorka aurreratu zaizkit behintzat! Bada, ez bada, eta nola agintzen den ikasten joateko, galdera bat egiteko gura dut. *Nola joan ote zaie iraultza hori aspaldi egin*

zuten herriei? Eta agintarien mailara heltzerik ez banu ere ikasten joateko, bigarren galdemodua: *gu baino hobeki bizi al da han aza jaten duen herri apala?*

-Egia esateko, dio Gorkak, garai batez nahiko beroturik ibilia naiz zuen burubide hauekin; eta hain zuzen galdegintza beta egin nion udan losuneri. Ez zidan erantzun garbirik eman. Dirutzakerian, kapitalismoan erori omen dira gehienak. Beste zerbait izango omen litzake, beraz, gure iraultzaren ondorea. Inun ez bezalakoa; berria.

-Hortan al gara orai? Eta alferrenak buru!!

-Ez; ez da dena hutsune gertatu, moztu du Patxik. Batean ez bada gauza ondo joan; beste nunbait giro ona bada. Neri hala esan didate.

-Mintza hadi garbi eta esan nun diren hobekienik Joan.

-Mao-ren zuzendaritza-pean.

-Eta nola ez dituk kidekoak elkarrekin konpontzen lehenik?

-Galdera musikala esaten diot nik horri: fistuz hasten zaizkit beti.

Atsaldean, itxura gaiztoko mikrobus txiki urdinean sartu zirela losune ta biak esan du Gorkak. Zaharra eta zikina iduritu zitzaion. Gidaria, hitz gutxiko gizon

idorra; txapel koipetsua kopeta erdiraino sarturik, portuko gizon txikien anaia iduri.

-Utzi orai alde batera goizeko itzal beltzak, esan zidan gure herritarrak. Zorion hutseko argi zurian sartuko gera laster. Dirudunen parabisuan...

Zubi bat iragan eta karrika estutan ibili ondorean kale nagusian sartu gaitu. Bost baizik ez ginen eta Corte Ingles delakoaren denda aurrean jetxi gara denok. Eguberri aurreko egunak. Jende asko eta asko ikus-mira, ikusgarri harrigarri haien inguruan. Ezin zen urratsik eman. Zorionak, zion euskeraz, argi mota guzikoekin atal buruko idazkiak. Sartu gara, sartu, badakizue nor den losune! eta han ibili, gora ta behe-ra txakurrak elizan bezala. Nere biziko lotsa pasatu nuen etxe hartan. Ehun duro ba ote genuen bion artean!

-Nork esan, hau ikusi ta, goserik badela munduan! zion gero losunek. Aldeko hau da Bizkaia-ko diru-etxea; hortaz ere mintza gintezke. Nunahitik begiraturik hori da hiri guziaren gain ageri. Eta itsasirik dagoen etxe zahar hau, berriz, monja etxea; zoaz zer milloiak eskeinirik egongo den jakitera!

Ilundurik zegoen gu atera orduko. Askoz ere politago dira kale nagusiak gauaz egunaz baino. Pareta

zaharren beltza ez da ikusten eta hari hesi guzien ordez apaingarri argitsuak ditugu buru gainean. Etxe garbitu berria bezala da gauaz hiri zikin pozointsuena.

-Nere neurri apalean eginkizun bat bete dut, esan zidan etxean gure lagunak.

Zer uste duzue egin zuela? Emakume barneko arropatxo bati bota zion esku eta paparrean sartu. Hau da han zegoen politena, zioen gero. Aurten eramaten dena.

-Burgeskeria deritzat hain gauza finari, erantzun diot.

-Emakume kontua! Baina ez dut horregatik egin. Dirudunei, diru kontuan, behar zaie izurratu. Denek hori egingo bagenie...

-Arriskua badu.

-Noski! Denda haundi hoietan beste nunahi baino gehiago. Jende askotxo delarik baliatu behar. (Zorroan eskua sartuaz): Zutaz ere oroitu naiz, esan dit gero. Ez duzu esku hutsean etxera joan behar! Galtza pare bat eman nahi zidan.

-Iosune, ez dut oiturarik. Emazkiozu beste norbaiti.

-Ez zara fraile sartu nahian ibiliko!

-Oraikoz behintzat, ez. Baina, ez dut hain gutxi-
rengatik eskurik zikindu nahi. Hartzekotan, behingoan
aberasteko zer bait.

-Aberastu, aberastu! Burgeskeria.

-Hala izango da; baina, ez dut eskurik zikindu
nahi.

-Iraultzan laguntzen ez duena, aurka dago. Zu
bat.

-Berdin zait. Zu zeure bidez eta ni nerean.

-Ipuin batean bezalaxe eraman duk haria, moztu
du Xabierrek.

-Neure begiz ikusiak! Ez diat ezer asmatu.

Ordu biak, eta ez inork etxera joateko solasik aipa-
tzen. Gustora gaude. Jai bezpera da ta beste nunbait
huts egina du norbaitek. loar mintzatu da:

-Zer, Xabier? Dantzara joan gabe? Ikus nahi nuke
nola dagon Mainer!

-Gaurkoz hala beharko du. Bihar, bihar muturra!
Jaia ota laino. *Panorama!* maisuak esaten zigun beza-
la.

Eta Xabierrek berak, handik geroxeago:

-Ezer garbirik aterako dugun ez dakit; baina, gau-
zak nahasi behintzat egin ditugu. Nik ez nuen uste

losune hala zenik. Euskaldun jator bezala agertu zaigu, gainera, beti.

-Hemen bai! Zein poliki. Zuek ikusi behar zenuten, erantzun dio Gorkak, nik ikusi dudana. Bizitegian diren guziak erderaz hizketan. Zer! esan nien sartzean; euskaldunok moda berrian erderaz? Badakik zer erantzun zidan losunek? Orokarrak zirela haiek; unibersalak. Beren artean aspaldi utzia zutela euskera.

Pizturik jarri da loar:

-Hori ere bai? Etorri dadila neregana; nik astinduko dut.

-Harena ikusirik dago.

Laster goizeko hiriak Oherako garaia. Lehen ere esana didate gau txoriak direla. Ez nuen uste hainbeste.

Harena ikusirik dago, izan ida azken hitza. Hauena ere bai. Xabier dute taldean begi zorrotzez gauzen mamira heltzen dena. Ateraldi onik ere badu eta hizbide erraza. Buru ona loar, idekia eta gozoa. Emakume izanik, nortasuna badu mutilen aurrean. Epel giroa sortzen du taldean. Bihotza. Gorka, jatorra da. Denek maite dute, eta asko lezake. Taldeko harreman guzien lokarria. Patxik hitz gutxi egin du; zerbait badakiela

ikusi da, baina ez jakin zein aldetara dagoen. Zalan-
tzako pundua.

-Goazen, jendeak, etxera, esan du berak.

Ilargi bete betea kanpoan. Oskarbi. Izotza ari du.
Ez du adierazten goiztegiak gure herriak barne muine-
tan darabilen ekaitza.

Ikastolara joan nahi ez duten haurren askatasunez hitz asko egin da azken aldi hontan. Bost urteko haurrea joan zitzaion lehengoan, kezka horrekin andereño bati:

-Andereño! Lanerako gogorik gabe nator.

-Eta zergatik hori!

-Nahigabe haundi bat badut.

-Jakin al nezake nik?

-Ez. Nere gauza da.

-Aaaa! ! !

-Andereño! Ez nago gustora; joan egin nahi nuke...

-Zure egitekoa hemen egotea da. Joatea erabakitzen baduzu, halare, eskubide osoa daukazu. Joan.

-Agur! bihar arte.

Etxe aurrean txakurrarekin jostetan ikusi du bere amak. Kalaka bizian dabil bere horrekin. Entzuten gelditu zaio ama:

-Gaixoa! esaten zion animalari. Asko sendituen atzokoa. Barnean gelditu besterik ez, eta kanpora bidali zintuen aitak. Hotz egingo zuen ba, kanpoan; Ez zaitu maite; langileen txakurra omen zara zu, arrunta, ikusiegia; arraza oneko txakur arrotza behar

omen du berak! Hemen ez den bezalakoa... Neretzat, berriz, su zara politena! (Muturrean musu bat ematen hasi zaio, eskua milikatzen zion txakurrari).

-Maider!! garraxi egin dio amak. Zer zabiltz hor?

Haurra ikaratu egin da eta txakurra ere begira gelditu dakio. Etxe aurrera aterata, poliki poliki:

-Ikastolatik ihes egin al duzu, maitea? galdetu dio alabari.

-Ez, ama! Ez da ihes egin behar! Lana egiteko gogorik ez neukala esan diot andereñori, eta utzi nau etortzen.

-Eta zergatik hori?

-Txakurrarekin oroitzen nintzen. Egiten zuen hotzarekin, zergatik bidali zuen aitak kanpora? Nere laguna da.

-Eta esan al dizkiozu kontutxo guziak lagunari?

-Bai.

-Goazen, beraz, ikastolara.

Senarra etxera etortzean denen berri eman dio amak.

-Haurra ikastolatik kanpo? Eta berak nahi zuelako? Halakorik ez genuen egundaino entzun!

-Antzinako irakaskintza zapalgarrian heziak omen garata! atzeraturik geundela, esan nahi zuen andere-

ñoak. Mundua beste bide batetik omen dijoa eta haurrak biharko munduari jarkitzeko hezi behar; ez atzera begira...

-Eta bitartean, haurrari gogoan jartzen zaion guzia egiten utzi? Bere buruz hasiko al da matematikak ikasten? Lanerako nagitasuna berezkoa du gizonak. Zer daki geroko komeni zaionaren berri?

-Askatasunean hezi behar omen dira haurrak.

-Mendira bota, orduan. Basapistien askatasuna ikasiko dute.

-Hoiekin guziekin alaba galtzera botako didaten bildur naizela esan diot gero.

-Etxean omen du gure haurrak bere biziko prolema, erantzun dit berak. Prolema hitza maite du gure andereñoak.

-Gure etxean prolema? Nahi duen guzia badu, berari begira bizi gera zu ta biok. Zer prolema modu ikusten du emakumeño horrek?

-Gehiegizko erraztasunena. Etxean ez duen laguna herriko haurretan beharko omen luke arkitu. Ez beti berari begira bizi eta aldian behin ekintza gaietara bultzarazi.

-Nun da beraz askatasunaren neurria? Zer moda berri dakarkigu?

-Burgesia korronpitu baten burubide ustelak omen ditugu; hala esan dio aldeko kontxesi-ri.

Etxekoandrea beti erderaz mintzo da senarrarekin. Haurrari egiten diote han entzuten den euskera pixka. Eta hori, euskera gauzak ongi ikusiak direlako; ez bihotzetik ateratzen zaien zer bat bezala.

-Neri kasu egin bazenit, esan du emazteak, gure haurrak ez zuen ikastolan ankarik sartuko. Badira gure mailako ikastetxe onak! Bost urte baizik ez du haurrak; ez da berandu... eta gero:

Euskera baino, ingles ikasi balu!

-Askotan entzuna dizut; ikasiko du ingles eta frantzes ere bai.

Artzainen alaba da aberats berri hura. Senarra berriz ez da euskaldunen semea. Txikitatik ikasia du, hori bai, euskera eta nahi luke bere alabari erakustea.

-Gaurkoa behintzat, txakurratik izan da, dio etxekoandreak; haurrak maite du eta bardakoa oso barne sartu zaio. Ikusi behar zenuen zer gauzak esaten zizkion! Kupigarri zen. Ez da halako anaiarik...

-Txakurra; beti txakurra. Hori baino egokiago bat ekarriko diot.

-...baina, ez du honekilako harremanik izango.

-Haurrak denetara jartzen dira.

-Ez dakit zer duzun txakur gizajo horrekin. Hobeagorik gostako zaizu...

-Badakit; onez, oso ona da. Etxea zaintzen du, ez du lanik ematen eta, auto hotsa senditu orduko, eza-gutu eta bidera ateratzen zait. Baina, ez da guretako egiten dena; nornahi etorri ta, artzai txakur bat etxean!

-Zertako dira txakurrak!

-Badakit zer esan nahi duzun, dio nagusiak; baina, arraza oneko txakur arrotz batek asko jazten du jabea.

-Jantzi, bai jantzi! eta alabaren minak axola gutxi.

-Zuk hainbat maite dut nik alaba. Horrexegatik, hobeago zerbait nahi dut beretzat. Ez diogu, gainera, hori kenduko; orai arte bezala jatera emango zaio.

-...baina, etxetik kanpo; hortxe, atarian, ahurrak gehiago sofritzeko. Txakurtegi egokia egina diogu ta...

Amaren hitzekin batera, Maider ikastolatik. Bere lagunaren atzetik joan zaizkio begiak. Txakurra lo dago eta ez da konturatzen. Begira, begira egon da eta, azkenean:

-Gaixoa lo dago, esan du. Bart gaueko hotzarekin ez bait zuen begirik itxiko! Nere lagunarendako ez da gure etxean lekurik.

-Maider!! Uuu!, egin dio aitak barnetik.

Txakurra esnatu da eta joan zaio ondora. Biak dijo-
az etxe aldera. Txakurra kanpoan gelditu eta Mainer
sartu da.

-Aitatxo esan dio orduan alabak. Ikusi zure
eskuak!

-Eskuak erakutsi dizkio eta haurrak bere txikiekin
perekatzen zizkion.

-Aita; eta zure eskuak latzak al dira?

-Ez dakit zer den hori! Zergatik galdetzen duzu?

-Andereñok esan du esku latzena dela mundua.

Bazkal garaian ez da mahaian garrantzizko zer
haundirik ibili, haurra denekin konturatzen hasia zela
jakinik. Mainer da gehienik mintzatu. Jale txarra da eta
ez zuen okelarik nahi.

-Ez baduzu jaten, ez zara haundituko, esan dio
amak.

-Eta haunditzen naizenean erderaz mintzatuko al
naiz?

-Erderaz!

-Bai; haundiak bezela. Neri bakarrik egiten dida-
zue euskeraz. Txikia naiz eta...

Atsaldea besterik gabe joan da. Iluntzean bere
auto gorri haundian badator nagusia. Hotsera beti
bezala mugitu da txakurra; baina ez da bidera atera.

Zerbaiten susmoa badu. Batzuen eritzian, gure hitz guziak ulertzen dituzte txakurrek. Txakur txiki, mutur itsusi karmañol bat atera zuen autotik. Bere aurreko guzien agiria eman diote, konde ala printze odoleko haurtxoa izan balitz bezala. Ipar aldeko txakur kasta omen da.

Sukaldearen erdian utzi eta ez zen zuti egoteko gauza. Belarri haundiak, izarak bezala lurrean arrastaka, ezin zen irririk gabe egon emaztea. Zoaz zer gostaia zukeen errekeitu hura!

Artzain txakurra, bitartean, desasosegu haundian zen. Ikusi du autotik jetxi eta etxean sartzen. Haren samina! Etxe hartako atariak beti itxirik egon dira beretzat. Burua apal, eta begiratze ilun batekin sarre-
ra inguruan dabil gizajoa.

-Begira, Maider! Aitak zer ekarri dizun!

Neskattoa bildurrez bezala begira gelditu da. Eta gero:

-Jaten al du, haundiak bezala.

-Bai, bai.

-Ikusi ere bai? Nun ditu begiak?

-Belarrien azpian gordeta.

-Ez da polita.

-Oso polita da, Maider! Diru asko balio du eta zure laguna izan nahi du.

-Hori zuretzat, eta ni haundiarekin geldituko naiz.

Besterik gabe, bere lagunarengana atera da haurra. Atal mugan gelditu zaio hura, sartzeko bildurrez. Lepotik hartuta sarrarazi du txikiak. Sukaldeko atarian ezin egonaren pasioz hozkara sartu zaio txakur berriari. Ez du ikutzen lanik izan: ostiko latzez bota du nagusiak atzera. Ai! hesturekn erantzun du.

Behatz txikiei hozka eginez, harriturik gelditu da Maider. Negarrari eman dio gero. Amak ez du ezer esan. Txakurak itzulia eman eta muturrarekin lurra jotzen duela atera da etxetik. Ez du urrats bat bestea baino arinago ematen; astiro, ezertarako pozbiderik gabe joan da jauregiko aurrean dagoen lorategitik. Karrabidea hartu du gero, eta pixka pixka galdu.

Maider atera da lehenik eta ttattolan ez zegoen txakurrik. Lau bost aldiz hotsegin dio; inun erantzunik ez. Txakurak ez du entzun, edo bestela ez dio erantzun nahi izan. Hotsetara ama atera delarik «Txutxo» oso irruti zegoen.

-Gizajoa! esan du amak; ihes dijoa. Berriz bizitzen hasi behar eta esker txarrak beti. Ez zuen hori merezi! *Zer bizi txakurra, txakur honen bizia!*

«Txutxo» bideberri nagusira heltzean, barneko mundu beltzean husturik zegoen-eta, ez du beste orduz bezala aldetara begiratu. Kamioi luze baten iku-tuak lehertu du.

Bide baztarrean gelditu da artzain txakurraren gorputza. Ez du inork jaso, lurpean sartu; balio gabeko gauzak bezala estali du neguko gau ilunak. Bere bidez jarraitu du, horregatik, munduak: beribillak argi ederrekin, prisaka; kamioi haundi txakur-hiltzaleak, bat bestearen atzetik hotsa eta ke beltza dariotela. Bihotz gabeko mundua; gozotasun gutxiko bizia.

Ona zen, esan du nagusiak. Baina, ez zen gureta-ko egiten zena. Txakur arrotz itxura gaiztoko batek beteko du etxeakoaren zuloa. Zer daki horrek ardien berri, ez mendiko biderik! Otso denborako borroka eta bizirik gordetako ardi galduak ipuin zaharrak dira. Nunbaiteko aita-ama erromesen agiriak gehiago balio du, bitxikeria bezala lagunei erakusteko. Alferra da eta ez du ezer egingo, era horrexegatik hezurren orde haragi gozoa emango dio. Haur txiki bat bezalaxe, egunoro dutxatu eta izara txuriz txukatuko dute. Gero, hede luze batekin lepotik hartu eta berekin atera. Besteak ez dutena erakusteagatik bakarrik. Txakur on batek etxea jazten bait du, eta nagusia oho-ratzen.

Etxekoandreak bihotzez senditu du txakurrarena. Joan-etorri guzitan laguntzen zuen eta, garbia zen

urra bezala. Inork jakin gabe, okel guriak ematen hasia zen. Lasai zegoen etxean, txakurra beti han zela jakinik. Denetaz adierazten zion. Gauza bat zuen txarra: merke hartua. Eta bestea, hori bezain txarra: bertakoa izatea. Geuria.

Haurtxoari ez diote gertatua esan. Berriz itzuliko delakoan dago aingerutxoa. Ez daki munduko maltzurkeriaren berri. Ona izatea hainbat hartzen ez duen mundua; azalergia hutsekoa.

Aldaketa haundi bat gertatzen ari da gure egunetan. Mendez mende, eta milaka urtez idatzitako liburu mardularen azkeneko orria da artzain txakurraren heriotza. Herri jakintza aberatsa galtzen goaz eta sentipen sakonak hustutzen.

Gure herria ez du inork hilko; baina, utzikeria eta ez-axolaren barne minez, bere burua urka lezake.